

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2019ko abendua / 300. zenbakia

www.oñati.eus  



INGO XONAU!



Emakumezkoen hitanoa biziberritzeko
proiektua jendaurrean aurkeztuko dute
abenduarien 14an



MAHAI-INGURUA: 'Etorkizuneko Oñati irudikatzen'

Aldizkariaren 300 zenbakiaren harira, mahai-ingurua Oñatiko azken bost alkateekin:
Angel Iturbe - Lourdes Idoiaga - Andoni Gartzia - Mikel Biain - Izaro Elorza

2019.12.17 (Kultur etxeko zine aretoan 19:00etan)

UDAL KIROL ZERBITZUAK 2020

Kiroldegiko obrak direla eta, datorren urtean eskainiko dituen zerbitzuen eta tasen berri eman du udalak



Andoni Correas

Kiroldegia berritzeko lanak aurrera doaz. Abuztutik hona kanpoaldeko obrak egin dituzte, baina urtarrilarekin batera kiroldegi barruan hasiko dira eta, ondorioz, hainbat gune itxi egin beharko dira: igerilekuak, fitness gela, gimnasioa, rokodromoa, boulderra, squash kantxak, karateko gela, medikuntza zerbitzuko gela eta bulegoak, besteak beste.

Urte osorako itxiko dira aipatutako guneak, eta horrek, noski, baldintzatu egingo du kiroldegiko zerbitzu eskaintza

Hala ere, Udal Kirol Zerbitzuko arduradunak ahalegin

berezia egiten ari dira, obren eragina ahalik eta txikiena izan dadin, eta alternatiba ezberdinak prestatzen ari dira; hala, Eltzian gimnasioa eta fitness ekintzetarako gela bana egokituko dira, eta uretako zerbitzuak berriz eskualdeko kiroldegietan eskainiko dira.

Bazkide txartelari dagokionez, bi aukera egongo dira: *Oñati Txartela* (lehorreko zerbitzuak bakarrik) edo *Mugiment txartela* (lehorreko eta uretako zerbitzuak). Abonatu tasa edo kuota ere ezberdina izango da, eskainitako zerbitzuen arabera.

Ondorengo orrietan daukazue informazio zehatza.

LEHORREKO KIROL ETA FITNESS EKINTZAK

Bi gune edo espaziotan eskainiko dira



ZUBIKOA
KIROLDEGIA

► SARRERA

Kantxa urdineko harrera gunean egokituko da kiroldegiko sarrera (tabernara doan arrapalaren ondoan).

► SARRERA-KONTROLA

Ohi bezala, hatz-marka digitala edo bazkide txartela beharko da kiroldegian sartzeko. Ez da tornu automatikorik egongo, baina bazkide diren erabiltzaile guztiek fitxatu beharko dute sarrerako kontrolean (ikastetxeek eta kirol elkarteek izan ezik).

► PILATES ETA FIT BIKE GELAK

Kantxa urdinaren ondoko Pilates eta Fit bike gelak orain arte bezala erabiliko dira. Monitoreek gidatutako jarduerak egingo dira bertan: Pilates, Pilates terapeutikoa, Fit Bike, Fit Bike birtuala, Fit Bike tonifikazioa, Fit Bike gazte, 3. adineko gimnasia, Zumba, Zumba txiki, Zumba gazte eta Gimnasia egokitua).

► KANTXA BERDEA ETA URDINA

Orain arte bezala erabili ahal izango dituzte herritarrek, kirol elkarteek eta ikastetxeek.

Berritasuna: Eguerdiko 12:30etatik 14:30etara abonatuak kantxa bat erabili ahal izango dute jarduera fisikoa egiteko Entrenamendu funtzionalerako materiala izango dute eskura: baloi medizinalak, step-ak, bosuak, gomak, TRX-a...

► ALDAGELAK

Kantxa bietako aldagelak erabilgarri egongo dira, orain arte bezala.

► PILOTALEKUA ETA TENIS KANTXAK

Orain arte bezala erabili ahal izango dira.

► EGUTEGIA

Gaur egungoa baino ordutegi murriztagoa izango du kiroldegia:

- Astelehenetik ostiralera 08:45-21:30
- Larunbatetan 09:00-13:30 / 15:00-19:30
- Igande eta jai egunetan 09:00-13:30.
- Uztailen eta abuztuan zerbitzuen murrizketa izango da kiroldegian (ikus www.oñati.eus)



ELTZIA
KIROLDEGIA

► GIMNASIOA

Eltziako 3. solairuan egokituko da gimnasioa. Zubikoa kiroldegiko gimnasioan dauden makinak eramango dira bertara, bai aerobikoak (zintak, bizikletak, eliptikak...) eta baita indar makinak ere. Ez da rokodromo-boulderrik egongo.

► FITNESS GELA

Ekintza gidatueterako (Gimnasia terapeutikoa, Zumba, Zumba strong, Zumba step, Body tono eta Body balanze) gela bat egokituko da Eltzia 3. solairuan, gimnasioaren ondoan.

► ALDAGELAK

Aldagela zerbitzua ere egongo da Eltzian. Gizonezko eta emakumezkoentzako aldagela bana eta takilak egongo dira Eltzia 3. solairuan.

► DUTXARIK EZ

Eltziako gunean ez da dutxa zerbitzurik egongo.

► SARRERA-KONTROLA

Abonatuak txartel elektronikoa jasoko dute, urtarilaren 13tik aurrera.

Kirol zerbitzuetako langileek eta Egoitek enpresako monitoreek egingo ditzute kontrol lanak Eltzia 3. solairuan eta fitness gelan.

► ORDUTEGIA

Zubikoa kiroldegia gaur egun duen ordutegi bera izango du:

- Astelehenetik ostiralera 07:20-21:30
- Larunbatetan 9:00-13:30 eta 15:00-19:30
- Igande eta jai egunetan 9:30-13:00
- Uztailen eta abuztuan zerbitzu murrizketa izango da (ikus www.oñati.eus).

► EGUTEGIA

Urtarrilaren 13ko astean irekiko dira Eltzia 3. solairuan kirol instalazioak.

URETAKO JARDUERA ETA KIROL EKINTZAK

Arrasate eta Bergarako igerilekuetan



Goiena

Arrasateko Musakola kiroldegiko barruko igerilekua.



Bergarako udala

Bergarako Agorrosin kiroldegiko barruko igerilekua.

► Igeriketa

Debagoiena eskualdeko herrietako igerilekuak erabili ahal izango dira:

-**Arrasate** eta **Bergarako** igerilekuak: kiroldegi hauen zerbitzu ordutegi osoan.

-**Aretxabaleta** eta **Eskoriatzako** igerilekuak: kiroldegi hauen zerbitzu ordutegi mugatuan..

OHARRA: Igerilekuetan aforo arazoak egonez gero, zerbitzu murrizketak egon daitezke.

► Mugiment Kirol Txartela

Debagoiena eskualdeko igerilekuak erabili ahal izateko, 'Debagoiena Mugiment Kirol Txartela' (DMKT) izeneko bazkide txartela eskuratu beharko da. Txartel honek Zubikoa nahiz Eltiako azpiegiturak eta zerbitzuak baliatzeko aukera emango du.

► 'Mugiment Kirol Txartela' App-a

Debagoiena Mugiment Kirol Txartela eskuratzen dutenek, 'Mugiment Kirol txartela' izeneko App-a deskargatu beharko dute eta bertan erregistratu, eskualdeko igerilekuetan sartu ahal izateko (App horretan azalduko da eskualdeko kiroldegi bakoitzean zein zerbitzu jaso eta erabili ahal izango dugun).

► Ur ekintzak

Mugiment Kirol Txartelaren App-an eskaintzen diren uretako jardura eta ikastaroetan parte hartu ahal izango dute abonatuak. Bergarako Spa gunea ezingo da erabili.

► Egutegia

Mugiment Kirol Txartela duten bazkideek urtarilaren 3tik aurrera erabili ahal izango dituzte eskualdeko igerilekuak, Kirol Txartela App-a deskargatu ondoren.

► Igerilari federatuak

Aloña Mendiko igerilari federatuak Bergarako Agorrosin kiroldegiko igerilekua bakarrik erabili ahal izango dute entrenamendu saioak egiteko, aurrez adostutako egun eta orduetan.



Ibarra kiroldegia

Aretxabaletako Ibarra kiroldegiko barruko igerilekua.



Eskoriatzako udala

Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegiko barruko igerilekua.

ABONUAK, TASAK ETA ADMINISTRAZIOA

Bi abonu mota egongo dira



► OÑATIKO KIROL TXARTELA (OKT)

Zubikoa kiroldegiko eta Eltzia instalazioak erabiltzeko aukera emango du. Abonu mota honekin ezingo dira bailarako kiroldegietako igerilekuak erabili.

Kuotak: Eskaniko ez diren zerbitzuetako kostuak kenduta, tasa murriztua du txartelak.

► DEBAGOIENeko MUGIMENT KIROL TXARTELA (DMKT)

Zubikoa kiroldegiko eta Eltzia instalazioez gain, Arrasate eta Bergarako igerilekuak urte guztian zehar erabiltzeko aukera emango du (udan, kanpoko igerilekuen erabilerak tokian tokiko mugak izan ditzake).

Kuotak: Txartel honen truke, Zubikoa kiroldegiko bazkideek 2019an ordaindu duten kuota bera ordaindu beharko dute.

KOD.	ABONU MOTA	OKT	DMKT
	BANAKAKO ABONUA (urtekoa)		
1	Adingabea (21 urtera arte), pentsioduna (bestelako diru-sarrerarik gabe) eta jubilatuak.	53,65 €	78,40 €
2	21 urtetik gorakoa.	97,70 €	149,45 €
3	21 urtetik gorako ikaslea (beste diru-sarrerarik gabe).	68,60 €	102,50 €
4	21 urtetik gorako langabeak (langabezia sariarekin).	68,60 €	102,50 €
5	21 urtetik gorako langabea (langabezia saririk gabe).	0 €	102,50 €
	FAMILIAKO ABONUA (urtekoa)		
6	Ezkonkideak edo egitezko bikotea (21 urtetik beherako seme-alabekin edo gabe).	137,20 €	213,15 €
7	Ezkonkide edo egitezko bikote langabea eta 21 urtetik beherako seme-alabekin (langabezia-sariarekin).	71,10 €	106,55 €
8	Ezkonkide edo egitezko bikote langabea eta 21 urtetik beherako seme-alabekin edo gabe (langabezia-saririk gabe).	0 €	106,55 €
9	Alarguna, dibortziatua edo banandua (21 urtetik beherako seme-alabekin); guraso bakarreko familia, familia ugaria eta genero indarkeria kasua (beste diru-sarrerarik gabe).	67,95 €	109,60 €
10	Ezkonkide pentsiodunak (beste diru-sarrerarik gabe) edo jubilatuak.	71,10 €	106,55 €

BAZKIDE TXARTELEN ALIAK ETA BAJAK

► Gaur egun kiroldegiko bazkide diren herritarrei, kontraktorik adierazi ezean, DMKT txartelaren kuota kobratuko zaie (2019an Zubikoa Kiroldegiko abonua kuota berbera). Abonatu hauek Zubikoa eta Eltzia zerbitzuak erabiltzeaz gain, Debagoiena eskualdeko kiroldegietako igerilekuak erabiltzeko aukera izango dute.

► Abonuari baja eman edo Oñatiko Kirol Txartela (OKT) eskuratu nahi dutenek, kiroldegiko bulegoetan eskatu behar dute urtea amaitu baino lehen. OKT abonua hartzen duten bazkideek soilik Oñatiko kirol eta fitness zerbitzuak erabiltzeko aukera izango dute, baina ezingo dute eskualdeko igerilekuak erabili.

Gaur egun kiroldegiko bazkide diren herritarrei DMKT txartelaren kuota kobratuko zaie kontraktorik adierazi ezean



INGO
XONAU!



Emakumeen hitanoak Oñatin duen osasuna neurtu dute **Ingo xonau!** proiektuaren baitan



Etxe-Aundi

Hotela - Juletekoa **

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com



'INGO XONAU!'

Emakumezkoen hitanoa biziberritzeko proiektua jendaurrean aurkeztuko dute abenduaren 14an

Otsailean jarri zen abian **INGO XONAU!** proiektua, Oñatiko emakumeen hitanoa (noka) jaso eta biziberritzeko asmoz.

Herri ekimenetik sortutako egitasmoa da. Emakumeen hika galtzen ari dela ikusita, herritar talde batek lanean hastea erabaki du, noka hitz egiteko ohitura betiko galdu baino lehen.

Ahozko ondarea jasotzen eskarmentua duen Badihardugu elkartera jo zuten, eta udalaren laguntza jasota, otsailean ekin zioten lanari, noka hitz egiten dakiten hainbat emakume eta gizakume elkarriketatuz.

54 herritar elkarriketatu dituzte guztira, 52 emakume eta 2 gizakume. Gainera, jasotako material guztia landu eta interneten ipini dute (<https://ahotsak.eus/proiektuak/onatiko-noka-ingo-xonau>) edonoren eskura.

AURKEZPEN EKITALDIA

Elkarriketak egiteaz gain, **Ingo xonau!** lantaldeak diagnostiko-ikerketak bat ere burutu du Oñatiko 16 baserri-auzoetan, noka berba egiten zenbat emakumek dakiten jakin guran (13 auzotar ibili dira datu-biltzaile lanetan). Eta jasotako testigantzekin bideo bat ere prestatu dute, nokaren gainbeheraren nondik norakoak azaldu eta gogoeta egiteko.

Eta hori guztiori abenduaren 14an aurkeztuko dute, Santa Ana antzokian (11:30) egingo den ekitaldian. **Ingo xonau!** proiektuaren zergatiak, helburuak, orain arte egindako lanak eta etorkizuneko erronkak azalduko dituzte bertan. Herritar guztiak daude gonbidatuta.



TALDE ARGAZKIRAKO DEIA

Abenduaren 14an egingo da **Ingo Xonau!** proiektuaren aurkezpena, eta egun hori baliatu nahi da argazki erraldoia ateratzeko (**LAZARRAGA LORATEGIAN, 11:00ETAN**) noka hitz egiten dakiten emakume guztiekin, Oñatin emakumeen hitanoa bizirik dagoela erakusteko. Beraz, bertara joateko gonbita luzatzen zaie noka aritzen diren emakumeei.

Noka berba egiten dakiten Oñatiko 54 herritar elkarriketatu dituzte

ahotsak.eus webgunean daude ikusgai elkarriketa horien bideo pasarteak

«Oñatin, zorionez, emakumeen hitanoa bizirik dago oraindik, eta garaiz gaude berreskuratzeke»

IDOIA ETXEBERRIA
Ingo xonau! lantaldeko kidea



Badihardugu elkarteko Idonia Etxeberria oñatiarrak jardun du **Ingo Xonau!** proiekturako elkarriketak egiten. Emakumezkoen hitanoa jasotzera mugatu barik, berreskuratzeke ahalegina egin behar dela uste du.

Emakumezkoen hitanoak Oñatin duen osasunaren diagnostikoa egin duzue. Zein da ondorioa?

Baserri auzoetara mugatu dugu azterketa. Kalean egitea oso zaila zen, etxerik etxe joan beharko genukeelako; beraz, Oñatiko hamasei auzoetan egin dugu datu biltzea eta, denera, 370 bat emakume daude noka berba egiten dakitenak. Horiei kaletarrak batuz gero, kopuru polita irtengo litzateke. Egia da 55 urtetik beherakoen artean hutsune handia dagoela, ia inork ez daki noka berba egiten, baina, hala ere, uste dut oinarri interesgarria dagoela emakumezkoen hitanoa berreskuratzea eta biziberritzen saiatzeko.

Gizonezkoen hika bizirik dago Oñatin, eta gazte askok erabiltzen dute. Emakumezkoena aldiz, apenas entzuten da gazteen artan. Zergatik?

Arrazoi bat baino gehiago dago, jakina, baina, besteak beste, erlijioak eta gizarteak urte askotan emakumeari ezarri dion rola aipatuko nuke. Emakumeak esanekoa, dotorea eta fina izan behar zuen, eta horrek gazteleraz berba egitea esan nahi zuen, besteak beste. Horrek etena ekarri zuen transmisioan. Gizonezkoek aldiz, askatasun gehiago izan dute sozializatzeko garaian (tabernetan, elkarrekin, lantegietan...) eta gune horietan modu naturalagoan mantendu da mutilen arteko hika.

Posible ikusten al duzu emakumezkoen hitanoa biziberritzea Oñatin? Merez du ahalegina egitea?

Euskarak duen berezitasun bat da hitanoa, beste hizkuntza batzuk ez dutena, eta Oñatin, zorionez, beste herri batzuetan ez bezala, bizirik dago oraindik, eta garaiz gaude berreskuratzeke. Oso erregistro polita iruditzen zait, konfiantza ematen duena, gertutasuna... Gazteek erregistro informalean erderara jotzeko duten joera hori ordezkatzeko egokia izan daitekeela uste dut. Garai batean ez zegoen ondo ikusia hika egitea, baina, gaur egun, gazteen artean hika aritzea 'guay' da, eta uste dut egon daitekeela interesa nesken hitanoa berreskuratzeke.

Diagnostikoa egin duzue. Hemendik aurrera zer?

Datorren urtera begira poltsikoko formatuko liburuxka bat ateratu nahi dugu, hikako aditz formekin. Horrekin batera, ikastaroak antolatzeke materiala prestatzen hasiko gara, hilabete hauetan egindako elkarriketak baliatuta. Bestalde, bideo batzuk ere egin nahi ditugu, herritarren artean zabaltzeko, hika noiz eta norekin egin behar den azalduz, besteak beste.

Proiektu polita da, ezta ?

Oso polita, bai. Asko disfrutatu dut elkarriketak egiten. Eskerrak eman nahi dizkiet proiektuan parte hartzen ari diren guztiei, bereziki elkarriketatuei, baina baita ere datu-biltzaileei, euskaltegiko kideei eta laguntzaile guztiei.

'Kirolak arnasa ematen dit'

» JOSEBA AZKARATE LAZKANOITURBURU



Bizitzak kolpe gogorrek emanagatik, posible da bilusioa berreskuratzea. Horixe bera erakutsi digu Joseba Azkaratek (32 urte). Bi urte bete dira kotxe istripu batek tetraplegia eragin zionetik eta, poliki poliki, ekinaren ekinaz, aurrera egiten ari da bere errehabilitazioan.

Azaroaren 12an bi urte bete dira istripua izan zenuenetik. Zer gertatu zen?

Autoz etxera bidean nentorrela, A-8 autobidean, lokartu egin nintzen, nonbait, eta bazterra jo.

Noiz jabetu zinen lesioaren larritasunaz?

Ospitalean iratzarri nintzenean; gorputzari lotuta makina pillo bat, ingurukoen aurpegiak eta, batez ere, mugitu ezin zarela ikustean ohartzen zara zerbait larria gertatu dela.

Gogorra behar du une horrek.

Oso. Zorionez, asko lagundu zidaten, bai iratik, bai familiak. Zuk zeuk barneratu beharreko kolpea da, baina ingurukoen babesari esker lortu nuen gauzak lasaitasun batekin hartzen, eta zulo beltzean erori gabe, argi pittin bat ikusten.

Zein lesio duzu, eta zer ondorio utzi dizkizu?

C5 eta C6 zerbikalak ditut kalte-tuta. Zorionez, lesioak ez dira erabatekoak edo konpletoak; alegia, bizkarrezur-muinetik in-

ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernández

Zure ETXEA eguneratu gutxiengo inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua eratzeko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



formazioa pasatzen da, eta horri esker, poliki poliki hobekuntzak lortzen ari naiz, fisioterapia eta ariketa fisikoari esker. Besoak mugitzen ditut, eskuturreraino, eta hortik behera badut sentsibiltatea, baina ezin ditut mugitu, oraingo.

Toledon eman zenuen ia urtebete, hezur-muineko lesioen tratamenduan espezializatutako ospitalean. Zer moduz?

Donostiako ospitalean gomen-datu zidaten hara joatea eta, egiari zor, esperientzia ez zen oso ona izan. Baliabideak badi-tuzte, baina arretari dagokionez, utzikeria handia sentitu nuen, salbuespenak salbuespen.

Zortzi hilabete eman nituen bertan, eta gero Madrilgo FORREN zentroan jarraitu nuen errehabilitazioarekin. Lesio medularretan espezializatutako zentro bat da, errealtate birtualean oinarritutako metodo bat dute eta oso ondo egiten dute lan. Aurtengo abuztuan ere hiru aste-ko egonaldia egin dut bertan, eta orain, abenduan, bi asteko intentsibo bat egiteko gogoia daukat.

Aurtengo martxoan, Oñatira etortzeko unea iritsi zen. Ez da erraza izango etxera itzultzea, kontraesana dirudien arren.

Beldurra daukazu, jakina, aurretik ezagutzen zenuen dena desberdina delako. Baina denbora asko neraman etxetik kanpo, eta etortzeko gogoia neukan, eta bizimodu berriari ekin.

Zorionez, ingurukoek asko lagundu didate. Toledoko egonaldian ere ia astebururo neukan bisitaren bat, eta Oñatira etortzean ere oso babestuta sentitu



ERRUGBIA

Gasteizko 'Zuzenak' elkarteko errugbi taldean ari da Joseba. Pasa den asteburuan jokatu dute aurreneko lehiaketa Zaragozan.



» **Konfiantza handia dut nire buruarengan, fisioterapia eta kirolaren bidez hobetzen joateko; exoeskeleto erako robotak probatu ditut, baina gehiago sinisten dut lan fisikoan**

» **Bateria elektriko bat erosteko asmoa daukat. Ederra litzateke berriz ere bateria jotzeko gai izatea. Gainera, ariketa bezela ere oso ondo etorriko litzaidake.**

nintzen. Eskerrak eman behar-
rean nago denei.

Zer moduz zaude orain?

Gero eta hobeto. Herriko dinamika ezberdinetan parte hartzen hasi naiz (kirola, kontzertuak, zinea...) eta, ari naiz, poliki poliki. Aste osoa okupatuta daukat (goizez errehabilitazioa, arratsalde

kirola), eta ez daukat denbora askorik burua hausten egoteko.

Aurrerapausoak ematen ari zara errehabilitazioan. Zenbateraino zara autonomoa?

Eskuetan ez daukat indarrik eta, beraz, laguntza behar dut gauza asko egiteko, bai etxean eta baita kalean ere. Baina arazo barik; laguntza eskatzen ere ikasi egin behar duzu.

Dena den, helburua da gero eta gauza gehiago nire kabuz egiteko gauza izatea; oherako transferentzia, adibidez, ia nire kabuz egiteko gai naiz, laster furgoneta gidatzeko kapaz izatea espero dut... Denbora honetan ezagutu ditut bakarrik bizi diren tetraplegikoak, eta posible dela ikusi dut, baina denbora behar (→)

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

Jaione San Miguel Ugarte
 **MAPFRE**
OÑATI

da, eta nirea oso berria da oraindik.

Errehabilitazioarekin jarraitzen duzu, ezta?

Bai, ia goizero joaten naiz Aita Mennira, eta orain Donostiako *Hegalak* zentroan ere hasi nahi dut. Uretan eta, oro har, errehabilitazioa kirolaren bidez egiten duen zentroa da. Lehen esan dizudan bezala, nire lesioak inkompletoak dira, eta, poliki poliki, ekinaren ekinez, mugimendu gehiago egiteko gai naizela ikusten dut. Lagun bati esan nion moduan, oraindik liburu denak idatzi barik daude, eta ea idazten dudan beste bat berria.

Teknologiak eta medikuntza bera ere eboluzionatuz doaz. Amets egiten al da?

Bakoitzak ikusiko du, baina nik, oraindik, konfiantza handia daukat nire buruarengan, fisioterapia eta kirolaren bidez hobetzen joateko. Exoeskeleto erako robot bat probatzeko aukera izan dut, baina, oraingoz, gehiago sinesten dut fisioterapeuta on batek eman diezadakeen laguntzan, robotarenean baino. Lesio guztiak ez dira berdinak, eta pertsonak ere ez, baina nik neuk, behintzat, ez dut oraingoz miraririk espero teknologiaren aldetik.

Kirol asko (pilota, mendia, korrika, urperaketa...) egiten zenuen min hartu aurretik, eta kirolean aurkitu duzu aurrera egiteko motibazioa, ezta?

Bai. Duda barik. Kirolak arnasa ematen dit. Kirolean daukat entrenamendua, sozializatzeko bidea, nire errekupeazioan aurrera egiteko aukera... dena.

Soraluze-Bergara lasterketan parte hartu zenuen *handbike*-ean. Zer moduz?

Oso ondo. Asko kosta zitzaidan; *handbike*-a oso astuna zen, baina, hala ere, uste baino azkarrago osatu nuen bidea, beste *handbiker* batzuen animo eta laguntzari esker. Esperientzia ederra izan zen.



Errugbian ere ari zara, ezta?

Gasteizeko Zuzenak elkarteak dauka tetraplegikoen errugbi taldea eta bertan ari naiz. Astean hiru entrenamendu saio egiten ditugu eta gustura nago. Giro polita aurkitu dut eta, gainera, lan fisiko handia eginarazten dizun kirola da. Ez da belarretan egiten, errugbi konbentzionala bezala, eta ez da hau bezain agresiboa, baina gure errugbian ere badago kontaktua, aulkia irauli egiten dira, gurpilak zulatu... Aurreko astean izan genuen aurreneko lehiaketa, Zaragozan, eta bertan egongo ginen, asteburu osoan.

Urperaketa ere probatu duzu, ezta?

Min hartu aurretik ere aritzen nintzen, eta, bai, Donostiako 'Hegalak' elkarteak antolatutako urperaketa egokituko saio batean parte hartzeko aukera izan nuen. Esperientzia aberatsa izan zen, eta espero dut aukera gehiago izatea aurrerantzean. Kayak-ea ere ibili naiz, eta palan jokatzeko duten bi talderen berri ere eman

HANDBIKE

Soraluze eta Bergara arteko lasterketan parte hartu zuen azaroaren 2an Toledoko ospitaleak utzitako *handbike*-arekin. Bizikleta hori bueltatu egin behar izan du jada, eta orain, Atxintxika elkartearen laguntzarekin *handbike* berria eskuratu zain dago Joseba .

ZOZKETA SOLIDARIOA

Antxintxika Triatloi Taldeak triatloi egokituko saila sortu du, eta Josebaren beharretara egokitutako *handbike*-a erosteko zozketa bat jarri du martxan. Oso gustora daude herritarrek emandako erantzunarekin, baina, gogoratu, urtarilaren 6ra arte salgai daudela boletoak (2€) **Boga, Aloña, Arrano, Iturri, Aker** eta **Garoa** tabernetan, **Sindikika** ostatuan, **Odriozola** harategian eta **Magdalena** gasolindegian. Urtarilaren 6an egingo da zozketa (25 bat opari sorta).

Josebaren bidea jarraituz, dagoeneko beste bi mutil gazte ere batu dira Antxintxikaren triatloi egokituko taldera, eta poliki poliki taldea sendotzea da helburua

didate, baina ezin denera iritsi.

Musika da zure beste pasioetako bat, eta hor ere baduzu proiekturik esku artean.

Bateria jo izan dut urte askotan. *Galdu Arte* eta *Ixilik* taldeetan ibili nintzen, eta beste talde bat sortzekotan ginen, istripua izan aurretik. Laster salgai jarriko dut etxean daukadan bateria, eta elektriko bat erosi nahi dut. Gauza ederra litzake berriz ere bateria jotzeko gai izatea eta, gainera, esku-besoan mugikortasunerako ere ondo etorriko zait.

Kolpe oso gogorra eman dizu bizitzak, baina aurrera egitea posible dela erakusten ari zara.

Aurrera egin behar da; 32 urterekin etxe zuloan geratu behar baduzu... Gauza asko egin daitezke. Laguntza pittin bat gehiago behar duzu, baina saiatuz gero, lortzen da. Borrokatu egin behar da, eta ikusi noraino eta zer lortzera iristen zaren. ■



Mikel Biain, Angel Iturbe, Izaro Elorza, Andoni Gartzia eta Lourdes Idoiaga, garai ezberdinetako aldizkariekin. © Nagore Goñi

MAHAI-INGURUA OÑATIKO AZKEN BOST ALKATEEKIN

Etorkizuneko Oñati irudikatzen

Kontzejupetik aldizkariaren 300 zenbakiaren harira, azken 27 urteotako alkateak elkartuko ditugu abenduaren 17an (19:00) kultur etxeko zine aretoan. Herriak arlo ezberdinetan izan duen bilakaeraz eta, batez ere, etorkizunera begirako erronkez hitz egingo dute.

Ibilian ibilian 300. zenbakira iritsi gara, eta hori ospatzeko ekitaldi berezia antolatu nahi izan dugu. Aldizkari honek bere ibilbidean ezagutu dituen bost alkateak elkartuko ditugu mahai-inguruan: Angel Iturbe (1991-2003), Andoni Gartzia (2003-2006), Lourdes Idoiaga (2006-2011), Mikel Biain (2011-2019) eta Izaro Elorza (2019-).

Alkate gisa bizi izandako esperientziak eta bizipenak kontatuko dituzte, bere gazi eta gozoezin. Baina, batez ere, etorkizunera begira jartzea eskatuko diegu, hiru hamarkada hauetan herriak

300

zenbaki kaleratu ditu
Kontzejupetik udal aldizkariak

izan duen bilakaera aztertu eta Oñatik etorkizunera begira dituen erronka nagusiez galdetuko diegu. Herria ondo ezagutzen dute, esperientzia ere badute, eta ziur gaude mamitsua izango dela alkateen arteko mahai-ingurua.

AIERT, KANTARI

Ekitaldiari hasiera emateko,

Kontzejupetik aldizkariaren sorrerari buruzko bideo bat ikusteko aukera egongo da, eta gonbidatu bereziak ere izango dugu, Aiert Alberdi kantariak eta Txinparta Bertso eskolako kideek ere parte hartuko baitute saioan zehar.

Mahai-inguruaz gain, erakusketa txiki bat ere egongo da udal liburutegiko sarreran, Kontzejupetik aldizkariaren 300 zenbakiekin.

Gainera, hilaren 21ean (10:00-13:00) zabalik izango ditugu gure egoitzako ateak, aldizkariaren erredakzioa eta Oñati Irratia ezagutu nahi duten herritarrentzat.

- EGITARAUA -



Abenduak 17



Kultur etxean




19:00

ERAKUSKETA

300 aleak ikusgai egongo dira liburutegi sarreran, abenduaren 17tik 31ra.

ATE IREKIAK

Aldizkariako erredakzioa eta Oñati Irratia bisitatzeko aukera egongo da abenduaren 21ean (10:00-13:00).



XII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA

Epaimahaiaren hiru sari eta herritarrena emango dira



Iazko ekitaldian saritutakoak (**Juanitosa** –1. saria–, **Urtxin** –2. saria–, **Andrea Azkoaga** –3. saria– eta **Kimu** –Herritarren saria– udaleko Sozioekonomia saileko ordezkariekin.–

Udaleko Sozioekonomia sailak XII. Erakusleihu Lehiaketa antolatu du, Txanda elkartearen laguntzarekin. Herriko denda eta zerbitzu guztiei luzatu zaie parte hartzeko gonbita, eta 22k eman dute izena. Erakusleihoei prest egon beharko dute abenduaren 6rako, eta hala mantendu beharko dira hilaren 31ra arte, gutxienez. Erakusleihuan denda-zerbitzuaren ohiko produktuak erakutsi beharko dituzte.

1.500€ SARITAN

Lau sari emango ditu aurten udalak. Lehenengo hirurak (500€, 300€ eta 200€) epaimahaiak aukeratuko ditu. Gipuzkoako Bazkundeko teknikari batek eta erakusleihu-apainketa arloko profesionalak osatuko dute epaimahaia, eta irizpide hauek hartuko dituzte kontuan balorazioa egiterakoan: konposizioa, argiztapena, koloreak eta originaltasuna. Herritarren sariaren irabazlea bozketa bidez aukeratuko dute herritarrek.

Sari banaketa ekitaldia abenduaren 21ean egingo da udaletxeko areto nagusian, 13:30etan.

Lehiaketan parte hartzen duten 22 komertzio **abenduaren 6rako** prest eduki beharko dituzte erakusleihok

HERRITARREN SARIA

200€ko saria zozkatuko da herritarren sarirako bozka ematen dutenen artean

Herritarren botoz erabakiko den 500€ko saria emango da aurten ere. Bi bide egongo dira aukeraketan parte hartu ahal izateko:

- **Internet** bidez, Oñatiko udalaren webgunean (www.onati.eus) edo beheko QR kodea eskaneatuta aurkituko duzuen formularioa betez.

- Ondoko orrialdean dauden **hautaketa-txartelak** bete eta toki hauetakoren batera eramanda: udaletxeko harrera zerbitzura edo Udal Sozioekonomia zerbitzura (Bidebarrieta 12).

Herritar bakoitzeko bozka bakarra onartuko da eta hautaketan parte hartzeko epea **abenduaren 18an (eguerdiko 14:00etan)** itxiko da. Bozketan parte hartzen duten herritarren artean 200€-ko saria zozkatuko da. Sari banaketa ekitaldia abenduaren 21ean egingo da udaletxeko osoko bilkura aretoan, 13:30etan.



Internet bidez bozkatu ahal izateko QR kodea

Mekalki
S. Coop. **mekanizatuak**
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es





OÑATIKO XII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

Nire BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 18ko 14:00ak baino lehen honako leku hauetako batera: Udaletxea (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

ZOZKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 EUROKO SARIA zozketatuko da

.....
Sinadura



OÑATIKO XII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

Nire BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____

NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 18ko 14:00ak baino lehen honako leku hauetako batera: Udaletxea (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

ZOZKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 EUROKO SARIA zozketatuko da

.....
Sinadura



OÑATIKO XII. ERAKUSLEIHO LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

Nire BOTOA erakusleiho honi ematen diot:

IZEN KOMERTZIALA: _____


NIRE IZEN-ABIZENAK: _____

TELEFONOA: _____

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 18ko 14:00ak baino lehen honako leku hauetako batera: Udaletxea (harrera bulegoa) edo Udal Sozioekonomia zerbitzua (Bidebarrieta 12-Behea)

ZOZKETA: Botoa ematen duten herritarren artean
200 EUROKO SARIA zozketatuko da

.....
Sinadura



17,2 milioi euroko aurrekontu proposamena aurkeztu du udal gobernua 2020rako

Abenduko plenoan eztabaidatu eta onartuko dira 2020ko udal aurrekontuak baina, dagoeneko, ezagutzera eman ditu gobernu taldeak oposizioari aurkeztutako proposamenaren ardatz nagusiak.

EH Bilduren udal taldeak 17,2 milioi euroko aurrekontua aurkeztu du, **inbertsioetara 1,8 milioi bideratuko** dituen.

2019ko **Partaidetzazko Aurrekontuetan** herritarrek haututako inbertsio sortari jarraipena emango dio gobernu taldeak. "500 mila euroko partida dago inbertsio horiek bi urtetan gauzatzeko, eta buru-belarri dihardugu horiekin. Horietako batzuk egikaritzen hasita gaude, hala nola, **Olakuako** kirol pistaren eraberritzea" azaldu du Izaro Elorza alkateak.

Bestetik, **San Lorentzo** eta **Olakua** auzoetako irisgarritasun planarekin jarraituko du udalak (150.000€), eta oinezkoen segurtasuna hobetzeko neurriak ere hartuko ditu, **Berezaora** doan bidea egokituz (50.000€) besteak beste. **Argiteria** publikoan kontsumo gutxiko LED argiak ipintzeko apustuari eutsiko zaio (100.000€).

Horiez gain, **landa auzoen** alde egiten jarraituko du uda-

Olapotoko zubian ez da bidegorria egokituko

Aldundiak ez du onartu udalak aurkeztutako proposamena

Foru Aldundia Olapotoko zubia berritzeko lanak egiten ari dela aprobetxatuz, zubiaren gainean 25 metroko bidegorri zatia egokitzea nahi zuen udalak, herri guneko eta Olabarrietako bidegorriak zuzenean lotzeko (goiko irudian erakusten den moduan). Gaur egun, Ugarkaldetik buelta egiten du bidegorriak, baina herritar askok zuzeneko bidea hartzen du, errepidera irten eta arrisku egoerak sortuz. Eta hori ekiditea zen udalaren asmoa.

Girder Ingeniaritzak idatzi zuen proiektu proposamena, udalaren enkarguz, eta bertan ikusi zen bidegorria egingarria zela zubiaren egitura aldatu gabe. Beraz, Legazpira doan GI-2630 errepide horren eskumena diputazioarena dela kontuan hartuz, udalak (gobernu taldeak eta oposizioak bat eginik) Foru Aldundiko Bide Azpiegituretako ardura-

dunei aurkeztu zien proiektua, bidegorriaren gain kostua bere gain hartzeko prest zegoela adieraziz. Hainbat bilera ere egin dituzte departamentuko arduradun eta teknikariek, eta proiektua teknikoki egingarria dela onartu badu ere, Aldundiak ezezkoa eman dio proiektuari, bidegorriaren gaur egungo trazatua seguruagoa dela argudiatuz, 50 metro luzeagoa bada ere.

Udalak "atsekabeturik" jaso du diputazioaren erantzuna. "Zonaldeko irisgarritasunean eta segurtasunean izango lukeen onura ikusirik, proiektua gauzatzeko ahalegin etengabea jardun dugu" adierazi du alkateak. "Aukera aproposa zen egunerokoan bertatik pasatzen diren oinezkoen eta txirrindularien segurtasuna bermatzeko, baina, zoritzarrez, Foru Aldundiak ez du ahalbidetu".

Catalana Occidente

Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konprometzu gabe:

✓ Heriotza	✓ Istripuak	✓ Etxebizitza
✓ Autoak	✓ Ontziak	✓ Aurrezkia
✓ Bizitza	✓ Osasuna	✓ Laborantzia

Helbide: Mobxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz
"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, **dei** iezaguzu".

lak (120.000€), **landa-bideak** konpontzeko 30.000€-ko atal batekin. **Araozko** ostatuko eta **Natur Eskolako** birgaitze lanak ere 2020an bukatzea aurreikusten da (170.000€). **San Prudentzioko** geltokian komuna jartzeko diru kopuru bat ere gorde da. "Foru Aldundiari dagokio Elorregin komuna ipintzea, baina, saiakerak saiakera, ez dugu erantzun baikorrik jaso, eta arazoari irtenbidea eman beharrean gaude, herritar askoren eskaera delako" argitu du alkateak.

Bestelako inbertsioak ere aurreikusten dira gobernu taldearen aurrekontu proposamenean, hala nola: gizarte zerbitzuetako mapa, Azkogaineko irisgarritasun plana, merkataritza biziberritzeko plan estrategikoa, Txaloka ludotekaren birgaitzea, Unibertsitate zaharrean helduentzako Esperientzia Gela sortzeko proiektua...

BALORAZIO POSITIBOA

Alkatea pozik agertu da gobernu taldeak osatu duten aurrekontu proposamenarekin. "Bagenekien ardura handiz jokatu behar genuela, kiroldegiko inbertsioak hala eskatuta, eta uste dut oso emankorra izan dela gobernu kideekin azken hilabeteetan egindako lana. Aurrekontuak doitu ditugun arren, 2019ko zerbitzuak mantendu ditugu eta, gainera, inbertsio garrantzitsuak egingo ditugu arlo guztietan".

Kiroldegiko obrei aurre egiteko eskatu beharko duen 8,5 milioiko maileguari aurre egiteko egoera onean dago udala, Elorzaren ustez.

Langabetuak kontratatzeke diru laguntza deialdia egin du udalak

LANBIDE enplegu zerbitzuarekin elkarlanean, langabetuak kontratatzeke diru laguntza deialdia egin du udalak. Egoitza soziala eta jarduna Oñatin duten eta 50 langile baino gutxiagoko enpresa txikiek eskuratu ahal izango dituzte laguntzak, 2019ko uztailaren 1etik 2020ko urriaren 30era arte egiten diren kontratu berrietarako. Laguntza jaso ahal izateko, kontratuak, gutxienez, 6 hilekoak izan behar du, eta lanaldi erdikoa, gutxienez. Gainera, kontratazioak enplegu sorrera garbia ekarri behar du berarekin, eta kontratatzen den pertsonak Oñatin erroldatuta egon behar du.

Udalak **1.000** euroko laguntza emango du lanaldi osoko eta sei hilabete edo luzeagoko lan kontratu bakoitzeko. Kontratatzen den pertsona emakumezkoa bada, laguntza **1.300** eurokoa izango da. Laguntza **%30** handitu daiteke, kontratatzen den pertsona kolektibo bereziren batekoa bada, Lanbide-ren irizpideen arabera. Datorren urteko urriaren 30era arte aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

Gizarteratze prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeke laguntzak

Bidebarri enplegu zentroan laneratze prozesua osatu duen pertsonaren bat kontratatzen duten Oñatiko enpresa txikiek (50 langile baino gutxiago) udalaren diru laguntza eskuratu ahal izango dute. Laguntza **3.000** eurokoa izango da, kontratua lanaldi osokoa eta sei hilabetekoa edo luzeagokoa bada. Gainera, laguntza **%30** handitu ahal izango da, kontratatzen den pertsonak 55 urte edo gehiago baditu, edo kontratua mugagabea bihurtzen bada. Enpresa bakoitzak gehienez **6.000** euro jaso ahal izango ditu deialdi bakoitzean.



Informazio gehiago, udaleko Sozioekonomia departamentuan (943 00 31 98 - Unai).

Alde zaharreko lokal hutsetan balio teknologikoko enpresen ezarpena sustatu nahi du EAJk

EAJren udal taldeak "pozik" jaso du herriko merkataritza sustatzeko plan estrategikoa egiteko udal gobernuak hartutako erabakia. "Urteak daramatzagu hori eskatzen" adierazi dute jeltzaleek, prentsa-ohar bidez. Plana egiteaz gain, bertatik eratorriko diren ekintzak lehenbailehen martxan jartzeko eskaera egin dute.

Illo horretan, alde zaharreko lokal hutsei bizia emateko, balio teknologikoko enpresen ezarpena sustatzea proposatzen du EAJk. Gainera, kaleak txukundu eta espazioa erakargarri egitea beharrezkoa ikusten du, "herriaren bihotza biziberritzeak herri osoa biziberritzen lagunduko baitu". Bestalde, gaztetxoekin egin beharreko sentsibilizazio lanean ere azpimarra jarri dute jeltzaleek. "Gaurko haurrak dira biharko bezeroak; beraz, herriko merkataritzaren inguruan duten ezagutza indartu eta atxikimendua areagotu behar dugu".

ERRESERBAK:

Helbidea,

Atzeko Kale, 32 behea

Telefona,

943 71 60 78



Herritar gehiagorentzat irekiko da pOz zerbitzua

- Bizitza sedentarioa duten 40 urtetik gorako herritarrekin hasiko da lanean.
- Etxez-etxeko laguntza zerbitzuko langileei ere formazioa eskainiko die, lan egiten duten etxeetan ohitura osasuntsuak sustatu ditzaten.



Oñatiko udala (Kirolak, Gizarte Zerbitzuak, Berdintasuna eta Partaidetza sailak) Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanean ari dira POZ zerbitzua sustatzen.

Apirilean jarri zen martxan osasun zentroan **POZ-Ohitura Osasuntsuen Orientazio Zerbitzua**, Oñatiko udala, Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzaren elkarlanari esker. Herritarren artean bizi-ohitura osasuntsuak sustatzea da bere helburua; sedentariomotik bizitza aktibora pasatzea. Orain arte, 70 urtetik gorako herritarrei zuzenduta egon da, eta emaitza onak ematen ari da. Maiatzetik hona 70 bat pertsona pasa dira zerbitzutik, eta %70 aktibatu dira, hau da, barneratu dituzte pautak edo bizi-ohitura batzuk aktiboago egoteko.

Beraz, orain arteko balantzea positiboa da, baina osasun eta kirol arduradunek haratago joan nahi dute, eta ireki egingo dute POZ zerbitzua gizarte segmentu gehiagotara.

► **40 URTETIK GORAKOAK.** Bizitza sedentarioa edota patologia kronikoren bat duten 40 urtetik gorako pertsonentzat irekiko da zerbitzua. Familia medikuek edo erizainek gomendatutako diete POZ zerbitzura joatea.

► **ETXEZ-ETXEKO LANGILEAK.** Etxez-etxeko laguntza zerbitzuan diharduten langileei formazioa eskainiko zaie (hautazkoa), beraiek lan egiten duten etxeetan ohitura osasuntsuak sustatu ahal izan ditzaten.

► **BULAR MINBIZIDUNAK.** Onkologikoarekin elkarlanean, Europako ikerketa baten baitan, bularreko minbizi metastasikoa duten herritarrekin lan egiteko gogoia eta prestutasuna adierazi du POZ zerbitzuak.

► **ESKOLA KIROLA.** Haur eta gazteekin lan egitearen garrantziaz jabetuta, Eskola Kirola programarekin elkarlanean sentsibilizazio kanpaina egingo dira, ohitura osasuntsuen inguruko gomendioak emateko.

Eskola Kirola eta POZ elkarlanean

Bizi-ohitura osasuntsuak gazteen artean sustatzeak daukan garrantziaz jabetuta, POZ zerbitzuak elkarlanean jardungo du **ESKOLA KIROLA** elkartearekin, eta urtean zehar hainbat ekitaldi antolatuko dituzte sentsibilizazio mailan. Hauek lehenengoak:

► MARKEL IRIZAR ETA AMAIA DIAZ DE MONASTERIOGUREN / ABENDUAK 5

Markel Irizar txirrindulari ohiak eta Amaia Diaz de Monasterioguren dietistak ohitura osasuntsuen gomendioak emango dizkiete LH6 eta DBH 1eta 2ko ikasleei.



► IMANOL IBARRONDO / ABENDUAK 11

'El secreto oculto de tu saboteador' izenburua duen hitzaldia emango du Realeko *coach*-a den Imanol Ibarrondok abenduaren 11n, kultur etxeko zine aretoan (19:00). Futbol jokalaria ohiak, emozioen kudeaketan eta errendimenduan aditua da Ibarrondo. Opariak zozkatuko dira hitzaldira bertaratzeko direnen artean.





'Bertakoak' aparkatzeko txartelaren titularrek HAZ bulegoan jaso behar dituzte 2020rako pegatinak

'Bertakoak-TAO' aparkatzeko txartelaren titularrek udaletxeko HAZ (Herritarren Arreta Zerbitzua) bulegoan jaso behar dituzte 2020rako pegatina berriak. Abenduaren 2an hasi dira banatzen. Ondoren, autoaren aurrealdeko kristalean itsatsi beharko dute, ageriko lekuan.



164 autok izango dute 'Bertakoak' guneeetan aparkatzeko txartela

2020ra begira 'BERTAKOAK-TAO' txartelak eskatu edo baja emateko udalak zabalduko epean 23 eskaera egon dira (15 alta eta 8 baja). Horrenbestez, datorren urtean 164 ibilgailuk izango dute 'Bertakoak' guneeetan aparkatzeko baimena; 65 ibilgailuk Aita Mortarako gunean (33 aparkaleku daude) aparkatu ahal izango dute, eta 99k Bidebarrietako gunean (37 aparkaleku).

HIRIGINTZA PLAN OROKORRA

Bilera irekia /ABENDUAK 9

Etorkizuneko Oñati nolakoa izango den markatuko duen Hirigintzako Plan Orokorra idazten ari da udala, hainbat eragile eta herritarrez osatutako Aholku Kontseiluaren laguntzarekin. Oraingoz, Aurrerapen fasean dago prozesua, eta une honetan mahai gainean dauden alternatiba eta aukerak azaldu eta hauen gainean eztabaidatzeko saio irekia egingo da **abenduaren 9an**, Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, 18) 18:15etan. Herritar guztiak daude gonbidatuta. Hurrengo astelehenean (abendua 16) Aholku Kontseiluko kideen bilera egingo da, leku eta ordu berean.

Su-detektagailuak ipintzeko 11 eskaera jaso ditu udalak

Etxe partikularretan su detektagailuak jartzeko 13 eskaera jaso ditu udalak aurtengo deialdian, baina horietako bik ez dituzte baldintzak betetzen eta, beraz, 11 etxetan egingo dira instalazioak. Gogoratu, bakarrik bizi diren 80 urtetik gorako herritarrek eta, gazteagoak izanik, mendekotasun bakardade edo arrisku egoeran bizi diren herritarrek (udaleko Ongizate batzordearen aldeko irizpena badute) eska dezaketela su-detektagailua. Udalak hartzen du bere gain gailuaren instalazio eta ondorengo mantenuaren kostua. Gaur egun, herriko 140 bat etxetan daude instalatuta su-detektagailuak.

Ezinduen aparkatzeko txartelen erabilera okerrengatik zigorrak jarri ditu udaltzaingoa

Udaltzaingoa, udaleko Ongizate batzordearen oniritziarekin, isuna jarri dio ezinduen aparkatzeko txartelaren titular bati, bere senide batek egindako erabilera okerrengatik. Gainera, 3 hilabeterako erretiratu dio txartelak. Azken bi urteetan era honetako hiru isun jarri ditu udaltzaingoa, eta gogorarazten du txartelaren onuraduna autoan doanean soilik erabil daitekeela.



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

Jardunaldiak Gaztetxean

Aurten ere **gai sozial eta politikoen** inguruko jardunaldiak antolatu dira gaztetxean. Abendu erdialdean izango dira eta gai ezberdinak jorratuko dira bertan.

‘FAXISMOA GAUR ETA HEMEN’

Abenduaren 10ean, asteartean, Hedoi Etxarte etorriko da hitzaldia ematera: **“Faxismoa gaur eta hemen”**. Kultur Etxean egingo den ekintza bakarra izango da, bertako areto nagusian. Faxismoa zer den, kapitalismoarekin zer harreman dituen eta Euskal Herrian eskuin muturraren ideiak nola uste baino zabaldutako dauden azalduko du.

‘ESTATU EREDUAK’

Abenduaren 12an, ostegunean, autoformakuntza izango da gaztetxean. Jorratuko den gaia **“Estatua”** izango da. Estatua zer den, noiz eta nola sortu zen, historian zer bilakaera izan duen eta estatu eredu batzuk (liberala, sozialdemokrata, sozialista) aztertuko dira, besteak beste. Gaiak badu mamia eta zer esanik ez gaur egungo testuinguruan, zeinetan estatuekin gatazkan gauden eta hemen ere estatu eredu propioak proiektatzen diren, izan Euskal Estatu Sozialista edo Euskal Estatu Feminista, adibidez.

EUSKAL MILITANTZIA AZTERGAI

Abenduaren 13an, ostiralean, Maider Arregi oñatiarrak emango du hitzaldia: **“Jakintza kokatutik, begirada bat azken urteetako euskal militantziari”**. Gaur egungo euskal militantziaren nondik norakoak ulertzeko XX. mendeko militantziaren analisi posible bat egingo du, filosofia politikoaren hainbat kontzeptu erabilita. Historiak non utzi gaituen ikusita, hitzaldiaren helburua XXI. mendeko euskal militantziaren erronkak identifikatzea izango da.

TERTULIA ETA KONTZERTUA.

Iluntzeko 20:15etan kartzelan preso egon zen pertsona baten bizipenak entzun ahal izango ditugu, tertulia giroan. Eguna borobiltzeko gauean kontzertua izango dugu: **“Autoreerota”**, Eñaut Uribesalgo bere gitarra eta ikus-entzunezko batzuk lagun dutela.

LATINOAMERIKAKO GATAZKA POLITIKOAK

Abenduaren 14an Oñatin bizi den Fran Vértiz argentinarraren eskutik **“Latinoamérica: proyectos políticos en disputa”** hitzaldia egongo da. ALBA Movimientos-eko kideak Amerikako herrialde ezberdinen proiektu politikoen bilakaeraren inguruko azken urteetako eta gaur egungo argazki orokorra azalduko

Jardunaldixak gaztetxean 2019

- Abenduak 10, asteartea, 19:00. **Kultur Etxean. HEDOI ETXARTE MORENO.** "Faxismoa gaur eta hemen"
- Abenduak 12, osteguna, 18:30. **AUTOPORMAKUNTZA.** "Zer da estatua?"
- Abenduak 13, ostirala, 18:00. **MAIDER ARREGI MARKULETA.** "Jakintza kokatutik, begirada bat azken urteetako euskal militantziari"
20:15tan: **TERTULIA.** "Iartzelako bizipenak" eta 22:00tan: **KONTZERTUA.** **AUTOREEROTUA** (Eñaut Uribesalgo)
- Abenduak 14, zapatua, 18:00. **FRAN VÉRTIZ** "Latinoamérica: proyectos políticos en disputa" eta 18:00tan: **SAMARA VELTE MORAN.** "Nik sinesten dizut, bortxaketaren kultura eta sanferminetako kasua"
- Abenduak 15, domekia, 10:00. **Mendi irtetara gaztetxetik. GURE BAZTERRAK.** "Kobazulak eta militantzia"
- Oharra: jardunaldiak denak **GAZTETXIAN** izango dira, astearteko hitzaldia izan ezik.

digu.

LIBURU AURKEZPENA

Ondoren **Samara Velte**k idatzi duen liburua aurkeztuko du, **“Nik sinesten dizut”**, zeinetan Sanferminetako eraso ezagunaren kasutik abiatuz indarkeria sexistaren forma ezberdinak aztertu eta bortxaketaren kultura ulertzen eta deszifratzen saiatzen den, berau aldatze aldera.

MENDI IBILALDIA

Abenduaren 15ean, domekan, mendi ibilaldia egingo da **Arantzazuko basoetara**, ezagunak ez diren kobazulo batzuk eta beraien historiak ezagutzera. ■

CORTABARRIA
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

MODA BEREZIA

NI moda

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

94.000€

zozkatuko dituzte GURE ESKUK, Tripontzia komiki digitala erosten dutenen artean

Ane Labaka eta Nerea Ibarzabalek idatzi eta Unai Gaztelumendik ilustratu duen **Tripontzia: burujabetzara bidean** komiki digitala eskuratzen duten herritarren artean 94.000 euro (60.000€ko sari potolo bat, 2.000€ko zazpi, 1.500€ko zortzi eta 1.000€ko zortzi).

Zazpi istorio batzen ditu **Tripontzia** komikiak. Burujabetzara bidean ahaldunduta doazen zazpi herritarren istorioak dira. Istorio horien bidez erakutsi nahi da, aldaketa handiak, sakonekoak, herritar askoren erabaki txikien ondorio izaten direla, eta erabaki txikiek egiten dituztela posible aldaketa handiak.



Txartelaren aurrealdean komiki digitala eskuratzeko kodea agertzen da, eta atzeko aldean zozketan parte hartzeko zenbakia eta seriea. Urtarrilaren 20an egingo da zozketa Beasaingo notari-tzan, eta egunean bertan iragarriko dira zenbaki sarituak **gureesku.eus** eta **tripontzia.eus** atarietan nahiz sare sozialetan.



NON ESKURATU

Tripontzia komiki digitala eskuratzeko txartelak **Urrintxo, Izarraitx, Arrano, Otamendi** eta **Garaa** tabernetan daude salgai, eta baita GURE ESKUKen lokalean ere (Kale Barrian)

Korapiloak askatzeko unea da

Presoen aldeko Gabonetako egitaraua

Oñatiko SARE plataformak dei egiten die herritarrei, euskal presoen eskubideen alde Gabonen inguruan antolatuko diren ekitaldietan parte hartzera.

- ➔ **ABENDUAK 20**, ostirala, 19:00, Foruen plazan
'ORAIN PRESOK. ETXERATZEKO GARAIA DA' EKITALDIA
- ➔ **ABENDUAK 27**, ostirala, 19:30, Foruen plazan
URTEKO AZKEN OSTIRALA
- ➔ **ABENDUAK 30 ETA 31** Zubikoa kiroldegian
GABONETAKO PRESOKEN ALDEKO FUTBOL TXAPELKETA
- ➔ **URTARRILAK 11**, larunbata, 17:00, (Bilbon)
ORAIN PRESOK '➔'ATERA BIDERA' MANIFESTAZIO NAZIONALA



'ARTEAGARA' kanpaina abenduaren 20ra arte luzatuko da

GARA egunkariari bidegabe egotzitako zorrari aurre egiteko, artearen bidez gauzatzen ari den elkartasun ekimena da 'ARTEAGARA', eta zortzi artistak (Zumeta, Lazkano, Gorriti...) espresuki egindako serigrafia originalak eskuratzeko aukera dago (<https://arteagara.naiz>).

HARPIDEDUN KANPAINA

GARAKo harpidedun egiteko kanpainak ere erantzun ona izan du, eta 'Espolio-GARA' Oñatiko batzordeak eskerrak eman nahi dizkie herritarrei. Jende askok ekarpen ekonomikoak egin ditu, eta diru horrekin serigrafia erosiak dituzte, GARAKo harpidedun egin diren eta dirua jarri dutenen artean zozketatzeko. Abenduaren 22an egingo da zozketa. Gogoratu, bestalde, GARAKo 500 azal liburua ere salgai dagoela, espolioari aurre egiten laguntzeko.

GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47
Oñati



100€ko lau erosketa bono eta 200€ko bat zozkatuko dituzte *Merkatari* aplikazioa deskargatzen duten bezeroen artean

Herriko komertzio txikiei laguntzea helburu duen **Merkatari app**-a deskargatzen duten herritarren artean 100€-ko erosketa bonoak zozkatuko dira abenduan zehar (astero bat), eta 200€ko bat, urtarilean, Merkatarik ekimenean parte hartzen duten herriko komertzioetan gastatzeko.

Tokiko komertzio txikiari lagundu eta bertako kontsumoa sustatzeko sortutako aplikazioa da **Merkatari**, eta honako abantailak eskaintzen ditu: **1.** Bezeroek herriko eskaintza komertziala modu errazean ikusteko aukera dute; **2.** Bezeroak eskaintza orokorrak eta pertsonalizatuak jasotzen ditu; **3.** Dendariarekin txat bidez kontaktatu eta zalantzak argitu edo eskaerak eta enkarguak egiteko aukera du bezeroak.



Merkatarik aplikazioa ez da produktuak internetez saltzeko aplikazioa, bere helburua bezeroak herriko komertzioetara hurbiltzea baita, tokiko komertzioen balore nagusia indartuz: gertutasuna.

Aplikazioa dohainik deskargatzen da eta oso erabilerraza da. *Android* eta *ios* sistemetarako dago erabilgarri.

Une honetan Oñatiko 15 komertzio daude **Merkatarik** aplikazioan. Proiektuan parte hartu nahi duten merkatariek **688 690 255** telefono zenbakira edo merkatarik@merkatarik.info helbidean jasoko dute informazioa. **Merkatarik** proiektuan parte hartzea dohainik da.

200€ko sei erosketa bono eta gabon saskiak zozkatuko ditu TXANDAK Gabonetan



Txanda txartelarekin egindako erosketetan 10€-ko deskontu bonuak zozkatuko dira

Opariz beteta dator TXANDA dendarien elkarteak eguberri jaiei begira. Alde batetik, Oñatiko produktuz osatutako hainbat gabon-saski eder zozkatuko ditu abenduaren 9tik aurrera TXANDAKo dendetan erosketak egiten dituzten bezeroen artean. Sari gabe geratzen diren txartelak 200€-ko sei erosketa bonoren zozketan sartuko dira (3 bono abenduaren 20an zozkatuko dira eta beste 3 urtarrilaren 3an), TXANDAKo komertzioetan gastatu ahal izateko.

► **TXANDA TXARTELA.** Bestalde, abenduaren 15a bitartean Txanda-txartelarekin egindako erosketa guztietan 10€-ko deskontu-bonuak zozketatuko dira. Erosketako unean bertan aplikatuko dira beherapenak.



Singular Denda izendapena jaso dute Andrea Azkoagak eta Candelukak

Tokian tokiko komertzioen lehiakortasuna hobetzeko asmoz, Gipuzkoako Merkatarik Elkartek 2014an sortutako ekimena da **Singular Denda** programa, eta udalaren laguntzarekin burutzen ari da Oñatin 2017tik hona. Dendarien konpetentziak, saltokiak, erakusleihoak eta komunikazioa hobetzea da helburua, eta horretarako hainbat formazio saio eta aholkularitza partikularra ere eskaintzen zaie dendariei. Aurten Gipuzkoako 23 komertzioek jaso dute **Singular** izendapena, tartean Oñatiko **Candeluka** erropa dendak eta **Andrea Azkoaga Interiorismo** dendak. Aurretik, *Maibi*, *Arkauz*, *Chic* eta *Amalur* dendek ere badute **Singular Denda** markaren aitortza.





TRUKEGUNEA

ipini dute plazan, birziklapena eta kontsumo arduratsua sustatzeko

Kutxa Ekogunearekin elkarlanean, udalak Trukegunea ipini du Foruen plazan, herritarrei trukean oinarritutako esperientzia eskaini asmoz. Gabonetan kontsumoak hartzen duen garrantzia ikusirik, kontsumitzeko modu ezberdinak ikusaraztea da helburua, opariak jaso eta ematea, konpartitzea bezain pozgarria izan daitekeela sinetsita.

Trukegunean era librean utzi eta jaso ahal izango dira objektuak, tarteko ordainketarik gabe. Jaso gustatzen zaizun hori eta gozatu. Ez da beharrezkoa trukean zerbait eramatea, bertatik zerbait hartzeko. Trukatu gabe geratzen diren jostailuak irabazi asmorik gabeko elkarrekin ezberdinetara bideratuko dira. Urtarrilaren 7rarte egongo da plazan *Trukegunea* eta *Ixutu Begixak* elkarteko kideek kudeatuko dute.

UTZI DAITEZKEEN OBJEKTUAK:

- Liburuak, CD originalak...
- Etxetresna elektriko txikiak
- Elektronika: telefono mugikor, irrati, mp3, telebista...
- Brikolaje eta lorezaintza
- Kirolerako eta aisialdirako produktuak
- Musika tresnak
- Apaingarriak
- Jostailuak
- Arropa osagarriak (gerrikoak, eskularruak, eguzkitako betaurrekoak, poltsak).

UTZI EZIN DAITEZKEENAK:

- Arropa (galtza, gona, nike, soineko, oinetkoak...)
- Janaria
- Produktu sanitario edo higienikoak
- Animalien produktuak
- Poltsa edo kaxetan, antolatu gabe uzten direnak
- Trukegunean sartzen ez direnak
- Egoera onean ez dauden elementuak

EGUTEGI-ORDUTEGIA

- Astelehenetik ostiralera, 17:00-19:30
- Larunbatetan: 10:00-13:30



ARGITALPENA

Oñatiko Emakumeak

Liburu berezia argitaratu du Josefe Diaz de Tuestak, argazki eta testuetan oinarritutakoa. Oñatiko 31 emakume ageri dira bertan, 11 familiatako belaunaldi ezberdinetako emakumeak (birramamak, amamak, amak eta alabak) eta beraien bizipen, iritzi eta aldarriak jaso ditu Josefek, erretratuekin batera. Edizio eta koadernaketa bereziko liburu da eta 60 ale argitaratu ditu, zenbakituak eta egileak sinatuak. Ale bat eskuratu nahi izanez gero jarri harremanetan egilearekin.

Saharar errefuxiatuentzako eskola materiala biltzeko kanpaina

Hermansoloña elkarteak eta Oñatin bizi diren sahararrek antolatuta, Tindouf-eko (Algeria) kanpalekuetan bizi diren sahararrentzako eskola materiala (koadernoak, boligrafoak, karpetak, papera...) biltzeko kanpaina martxan dago, abenduaren 15era arte. Herriko estanko eta paper dendetan, ikastetxeetan eta Ulma Packaging-en daude bilketa puntuak.

Turismo eskaintza zabala abendurako

Turistei eta, oro har, herritar guztiei zuzendutako bisita eta ekitaldi sorta zabala programatu dira datozen asteetarako. Hala, abenduaren 6, 7 eta 8an '**Oñatiko altxorrak**' bisita berezia egiteko aukera egongo da turismo bulegoaren eskutik (13:00 eta 16:30). **Arantzazuko santutegia** ikusteko ere bisita bereziak egingo dira (10:30, 11:30 eta 12:30), eta baita **Txokolateixan** ere, abenduaren 6 eta 7an (12:00 eta 17:30).

Bestalde, Sancti Spiritus unibertsitateko klaustroa **kandelen argiaren** xarmarekin ikusteko aukera egongo da abenduaren 7an (18:00-19:30) eta 20an (19:00), Jose de Azpiazu musika eskolako ikasleek girotuta. Bestalde, abenduaren 15ean **Espeleio Txiki** bisita berezia egingo da Arrikruzteko koban, 6 urtetik gorakoentzat (heldu batek lagunduta). Aurrez erreserba egin behar da (943082000).

Yoga ikastaroa pentsiodunentzat

Oñatiko *Sanatana Dharma* Yoga Eskolak 30 urte betetzen ditu eta hainbat hitzaldi eta ekitaldi antolatuko dituzte ikasturtean zehar. Besteak beste, pentsionistei zuzendutako ikastaroa eskainiko dute urtariletik aurrera, kuota murriztuekin. Bien bitartean, urtea amaitu arte, ostiraletan (10:45-12:00) eskolako ateak zabalik izango dituzte, nahi duenak herriko Yoga Eskola (Bidebarrieta 28) ezagutzeko aukera izan dezan. Informazio gehiago: 661345991.



Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Zazpi, eta ez da aski

Beñat Ormaetxea eta Maider Atxa, Antixena Gaztetxeko Asanbladako kideak

Zazpi urte azkar esaten da. Irailean sartu eta abenduan herriarentzat ateak ireki, gaur arte. Eta aurten ere, udako opor eta herriko jaien ondoren, indarberrituta, ikasturteari gogoz ekingo da.

Herriko gazte gehiagoren parte-hartze aktiboari esker eta sortu diren harreman berriei esker, autogestioan eta gazteriarren beharretan oinarritutako proiektu interesgarri ugariarekin eman zaio hasiera ikasturte berriari. Bargastak Talde Feminista eta Eperra Mendi Taldea ditugu horren adibide. Egindakoari jarraituz eta egiteke dagoenari gogotsu helduz, herriari eskaintako agenda forma hartzen ari da aurten ere.

Azaroko Sharon Stoner / Broken legacy kontzertu eta Okupazio Jardunaldien ostetik abenduko egitaraua topera dator! Abenduak 21 ospatuko den urteurren festaz gain, hilabete osoko egitaraua osatu da; ipuin kontalaria, Kataluniako Gaztetxe topaketetara bidaia, Jardunaldi politiko-sozialak, mendi irteerak, gauetako nahiz igande eguerdiko kontzertuak, ikastaro ezberdinak, urte amaierako DJ festa eta askoz gehiago. Beraz, bada nola berotu neguan sartuko garen honetan.

Asko egin da 7 urte haue-tan, baina ez da aski. Gazte mugimenduaren sua hauspotzen, indartzen eta berau

birmoldatzen jarraitzen du matu Gaztetxera!!
Gaztetxeko asanbladak. Ba- Asanblada ostiralero izaten
delako hamaika motibo, ani- da, arratsaldeko 18:00etan.

OHAR ETA DEIALDIAK

► DURANGOKO AZOKA

Abenduaren 6an Durangoko azokara joateko autobusa antolatu du Elkar Hezi ikastetxeak. 9:45etan irtengo da autobusa (Goienako geltokian) eta 14:15etan itzuliko. Prezioa, 6€, gutxi gora behera, batzen direnen arabera.

► ELKARTASUN AFARIA

Parrokiako Misio Taldeak antolatuta, afari solidarioa egingo da **abenduaren 13an**, Bidaurretan (20:00), Ginea Conakry-ko elkartasun proiektuaren alde.

► ELKARTASUN AZOKA

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta, Euskal Herriko GKE-en azoka egingo da **abenduaren 14an**, Foruen plazan, goiz osoan zehar. Yoga solidarioa, nekazaritza kulturaren inguruko tailerrak, aurpegia margotzekoak, eta Elkar Heziko komunitateak prestatutako gozoak dastatzeko aukera egongo da, besteak beste.

► HERRIKO ARTISAUEN AZOKA

Herriko artisauen Gabonetako Azoka egingo da **abenduaren 15ean** herriko plazan (10:30-14:30). Hogeibat artisauen eta Oñatiko taila taldearen lanak bertatik bertara ikusi eta, bide batez, Gabonetako oparixkoak erosteko aukera ederra izango dugu.

► ZUBIKOA KIROLDEGIA ITXITA

Gas eta ur horniduran mozketak egin behar dituztenez, gune hezeko zerbitzuak (igerilekua, sauna...) itxita egongo dira **abenduaren 16an**, egun osoan. Gune lehorreko zerbitzuak goizez itxita egongo dira eta 14:30etan irekiko dira, baina dutxetan ez da ur berorik egongo egun osoan.

► PINTXO-POTE SOLIDARIOA

Hotz-Oñati taldeak antolatutako pintxo-pote solidarioa egingo da **abenduaren 20an**, Foruen plazan (19:00).

► BERTSO TXAPELKETAKO FINALERAKO AUTOBUSA

Abenduaren 14an Donostian (Illunben, 17:00etan) jokatuiko den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketako finalera joateko autobusa antolatu du Txinparta Bertso Eskolak. Txartelak Txokolateixan egongo dira salgai, agortu arte. Autobusa 14:00etan abiatuko da Korreoseko geltokitik. Finalerako sarrerak **bertsorarrak.eus** atarian eskura daitezke.

► HERMANSOLOÑAREN ORDUTEGIA

Hermansoloña GKEaren lokalaren ordutegi berria hauxe izango da: goizez 9:00-11:00 eta arratsaldeaz 17:00-19:00.



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Bigarren aldiz garaile

Atal honetan behin baino gehiagotan protagonista izan dugun argazkilaria, herritar askoren ahotan egon da azken egunotan. Félix Sanchez oñatiarrak bigarren urtez jarraian irabazi baitu Nazioarteko Atletismo Federakuntzaren urteko argazki onenaren saria. Shelly-Ann Fraser-Pryce korrikalariari Dohan ateratako argazki ikusgarriari esker eraman zuen garaikur nagusia. Ama izan eta bi urte lehiaketatik aldenduta egon ostean, berriz ere munduko txapeldun izatea lortu zuen unea jasotzen du argazki sarituak Azaroaren 23an jaso zuen saria Monakon.



EVA POMARES

Kafe OTAMENDI Taberna

Beste urtebetez, gudan erakutsi
duzuen konfidantza eskertu nahi dizuegu

GABON JAI ZORIONTSUAK!

Martzelino Zelaia 1 • Tel.: 943 78 19 49



Gure ekintzen berri emango duen atala...

TXALOKA BERRAMESTEN

Gure Ludoteka dagoen eraikineko etxebizitzan igogailua jarri dute eta ondorioz, eraikina obratan egon da maiatzetik gerora. Obra hauek ludotekako espazioan ere eragina izan zuten eta gu ere ordutik gaztelekuko sotoan gaude. Obrak aprobe-txatuz, guk ere gure ludoteka biziberritzeari ekin diogu eta buru-belarri gabiltza horretan lanean. Baina nola biziberritu?

Txatxilipurdiren baitan **Berramesten** izeneko egitasmoa daukagu oinarri, etxe barrura zein kanpora begira lanean di-harduena duela 3-4 urtetik gerora.

Egitasmoen oinarri pedagogiko eta filosofikoak etengabe elikatu eta egitasmoak balio eta moduetan berrizteko lanean dihardu **Berramestenek**. Ildo honetan, egitasmoak lantzen dituen balore edo zutabe nagusiak ondorengoak dira: parte hartzea eta haurtzaroa zein nerabezeroaren kultura, jolasaren garrantzia, naturarekin harremana, aniztasunaren trataera eta KEB.

Arlo honen bidez, ondorengo lau jarduera eremuak jorratu ditugu azkenengo urteetan elkartearen baitan:

- Ludoteka ereduari buelta eman diogu, haurren parte hartzean sakondu eta nerabeen parte hartzean lehenengo urratsak eman ditugu.
- Hezitzaile lan taldeen formazioa.
- Balio hezitzaileetan eta parte hartzean oinarritutako Oinherri egitasmoa sustatu eta beronen garapena elikatu.
- Hezkuntzan naturak duen eragin positiboa landu eta garatu.
- Amaitzeko, Marshall Rosenber psikologo Estatu Batuarraren *Komunikazio Ez Bortitza* liburua euskarara ekarri.

Elkartearen baitan eta gure zerbitzuetako lantaldeetan zutabe horiei heltzeko, 3 eremuetan zentratzen gara; **espazioa, baliabideak eta hezitzaileen esku hartzea**.

Espazioari dagokionen, honi garrantzia eskaintzea lagungarria izango da. Espazioan ez du inork bere egunerokotasu-nean inolako oztopo arkitektonikorik aurkitu behar, eta pertsona guztien ezaugarriak kontutan hartu eta autonomia osoz mugitzeko baldintzak eman behar dira.

Materialari dagokionean, espazioarekin gertatzen den bezala, honek ere haurren ikaskuntza prozesu eta hausnarketak erraztuko dituzten bitartekoak dira. Gauzak horrela, ezinbestekoa iruditzen zaigu hauen kokapen eta ezaugarriei bere biziko garrantzia ematea.

Amaitzeko, **hezitzailearen esku hartzeari** dagokionean, guretzako ezinbestekoak diren ezaugarri batzuk dira hauek:

- Erreferentia izan behar da,
- Inklusiboa, malgutasunez jokatu behar du haurra ulertu eta bakoitzaren beharretan oinarrituz.
- Une oro haurren ezagutza eta ahalmenak balioan jarri behar ditu
- Muga edo limiteak zigor eta saririk gabe ezartzen jakin behar du
- Zerbitzuan sortzen diren proiektu zein prozesuak modu kolektiboan bideratu beharko ditu, denen arteko eraikuntza balioan jarritz.
- Komunikazio ez bortitzaren bitartez komunikatuko dena eta adimen emozional garatua duena, emozioen identifikazio, kudeaketa eta hauen onarpenean erraztasuna duen pertsona.

Oinarri horiek barneratuta urtarila erdialderako txaloka ludoteka gure jatorrizko espaziora bueltatuko gara. Adi egon eta etorri inauguraziora!

AGENDA: 19.12.5 Garaion: Etxolak ibiltaria, 17:00etatik aurrera. | 19.12.6 Topalekutik Durangoko Azokara irteera (aurrez izena eman behar da 5€). | 19.12.13 Kastañada kuboan, 17:00etatik aurrera. | 19.12.14 Lisabö + Alba taldeen kontzertua. Aurresalmenta: 10€. | 19.12.20 Olentzeroren bila, 17:00etatik aurrera. Aurrez izena eman behar da. | 19.12.26 3, 4 eta 5. mailako irteera. Aurrez izena eman behar da (5€). | 19.12.26 DBH 1 eta DBH 2. mailako irteera: Ginkana + PIN. Aurrez izena eman behar da (5€). | **Abenduak 24,25, 31 eta urtarrilak 1** Gaztelekuko zerbitzuak itxita.

Aldaketa klimatikoaren amua

» Iritzia Aimar Uribesalgo, Ingurumen hezitzailea 

A spaldidanik gaude mundu mailako krisi ekologiko baten barneraturik, eta horregatik aldaketa klimatikoaren gaia pil-pilean egotea arbitrarioa da hein batean. Orain dela 50 urte ere nahikoa arrazoi zeuden gure oinarri biofisikoarekin dugun kontraesanarekin larritzeko eta hemendik 50 urtetara ere egongo dira. Komunikabide handiek zerikusi handia dute ziurrenik, lehentasun sozialen inguruko kezken hierarkia markatzen baitute, eta bide batez, naturzaletasun akritiko bat bultzatu. Bestalde, ez da kasualitatea izango problematika honen gaineko erreakzioak erregai fosilen ekoizpenaren amaierarekin kointziditu izana, sistemari petrolio oinarri duten teknologietatik elektrizitatea bektore bezala darabilten gailuenganako trantsizioa egitea komeni baitzaio. Autogintzak dituen erronken adibidea paradigmatikoa da, adibidez.

Dena dela, hemen aldaketa klimatikoa errotik aldatzeko erreakzio bat sortu dela agian lartxo esatea da. Errealistagoa iruditzen zait gaiak duen dimentsioa eta ematen zaion perspektiba atentzioa desbideratzea dela baieztatzea. Huts egiten dabilena ez da gizartearen azaleko aspektu bat (berotegi efektua sortzen duten gasen isurketa), baizik eta bere oinarrian dagoen egitura eta horrek naturarekin harremantzeko dakartzan moduak. Krisi ekologikoa sortzen dabilen sistemak ez ditu bere premisak zalantzan jarri nahi, eta horregatik arazoa ikuspuntu estruktural batetik jorratu beharrean (kapitalaren balorizazio etengabeak dakarren hazkunde ekonomikoaren naturaren jazarpenaren bidez) azaleko erantzunen beharra aldarrikatzen da: politikarien eta gizarte zibileko norbanakoen borondatea, ingurumen hezkuntza, ingeniariaritz mailako soluzio teknologikoak, ikerketa zientifikoaren biderkatzea etab. Konponbide teknokratak dira, sistemaren logika

produktibistak sortzen dituen arazoak sistema aldatu gabe konpontzeko ilusioa zabalduz. Sarraskia ekidin baino, sarraskia kudeatzea da egiten dena. Horra hor, zientziaren izenean ideologia; datu enpiriko eta estatistikoen itzalpean, propaganda.

Administrazio publikoek hainbat programa, jardunaldi edo ekipamendu bultzatzen dituzte ingurumen gaiak landu eta "pertsona kontziente, kritiko eta arduratsuak hezteko". Egia da hezkuntzak fenomeno eta problematika naturalen inguruko informazio eta balioak transmititzeko gaitasuna baduela. Hala eta guztiz, gaian "adituek" diotenaren kontrara, ingurumen hezkuntza ez da krisi ekologikoa errotik konpontzeko gakoa. Hori zaila da agian Euskal Herrian ikustea, gure bizi ereduak eragiten dituen ingurumen inpaktuak munduko beste tokietara deslokalizatzen baititugu, eta gure aurrezki monetarioen zati handi bat beste herrialdeen kapital naturala agortzetik baitator. Ideien, balioen eta gaitasunen arloan eragiten du hezkuntzak, baina ondoren ikasleak beste ideia eta balio batzuen arabera mundu material batera moldatu behar dute: harreman sozial konkretu batzuetara, non klase sozialen bidezko botere erlazio nabarmenak dauden eta merkatua botere horien arabera dinamika itsuan murgilduta dagoen. Bide horretan natura suntsitzeaz gain, lan indarra saltzen dugunon alienazioa gertatzen da: ekonomiatik eta naturatik deskonektatuko izakiak gara. Ekosistemak etengabe suntsitzen dituen ekonomia ingurumen hezkuntza integratzen du bere baitan. Hazkunde ekonomiko mugagabearen aldeko apustua egiten duen Eusko Jaurlearitzak jasangarritasunerako hezkuntza bultzatzen du. Dena dela, kapitalismoa kudeatzeak dakartzan kontraesanak uste baino koherentzia handiagoa dute, praktikan bazter guztiak apurtu

eta diskurtsoan hori makillatzeak balio izaten baitu ordena sozial ororen egonkortasunean. Oraingoan aldaketa klimatikoaren amua bota digute eta guk hozka egin diogu. Badago pragmatismoa eta utopismoa uztartzea komeni direla dioenik, baina zenbait utopismoaren izenean ez ote dira errazegi pragmatismoan lerratzen?

Krisi ekologikoa krisi sozialarekin lotuta dagoenez, bigarrena "konpondu" ezean errealtateari adabakiak ipintzen gabilta. Kontua zera da, efektuetan gelditzea baino kausetara jotzea. Sistema sozial bat epe luzera posible izan dadin irizpide ekologikoak kontuan izan behar ditu, horiek merkatu librearen logikaren gainetik ezarri. Ekonomian ematen den inbertsio pribatuaren (enpresarietara egiten dutena) gaineko erabakiak sozializatu egin beharko lirateke, aberatsak ezabatu eta ekoizpena eta kontsumoa planifikatu zer eta nola ekoizten duguna kontrolatuz. Azken hori enpresariaren interesen kontra doa zuzenean. Auzi ekologikoa klase borrokarekin lotuta dago. Hori guztia ez da kapitalismoarekin bideragarria, kapitalismo berde bat ezinezkoa baita, eredu hori barne dinamika hazkor batek definitzen duelako, baliabide naturalak eta ingurumen espazioak etengabe modu basatian ustiatuz. Hortik dator naturarekin dugun erlazioatzeko moduen aldaketaren beharra, gizakiok gizakiokin dugun harremantzeko moduak aldatuz gertatuko dena. Erronka beraz, ez da makala: nola asetu munduko biztanleen beharrak autogestio kolektiboaren bidez. Berrikuntza teknologikoa baino berrikuntza soziala da behar duguna.

Ekologiaren auzia ezin da ebatzi auzi soziala ebatzi gabe, ekologia kontu soziala delako. Kolektibitatea berrasmatu beharra dago, eta oinarritzko baliosozialistak berreskuratu: berdintasuna, kooperazioa, komunitatea, horizontalitatea, zaintza, kultura politikoa, espiritualitatea... xelebrea badirudi ere, baita arrazoi ekologikoengatik ere. Teoria hau guztia ongi dago, baina zer egin? Erantzuna ez litzateke artikulu soil honetan kabituko, eta gainera, nekez asmatuko nuke galderari erantzun borobil bat ematen, pragmatismoaren izenean utopismoan erortzen denetakoa bainaz.



Arotzak zelako lanak egitten zittuain ikusten da ondoko argazkian: Arrikruz baserriko teillatupeko egitturia da.

1978xan, hirurogeita hemeretzi sozio ekuan, hogeita hamahiru gizakuma eta berrogeita sei emakuma, eta sarrera-kuotia hamabost pezetakua. Urtian behin pagaitten zan kuotia, baiña urtian hermandadian hilddako bakoitzeko dirubatze bat egitten zan urteko kuotaren bestekua, hilddakuen famelixiari lagunketako. 1958an, 500 pezetakua zan laguntzaia eta 1970etik aurrera, 1500ekua.

Usadixo moduan, San Jose egunian, martixaren 19xan, Juntia eta Meza Nagusixa izaten euen, eta, ondoren, mokaua edo otamena ardo onarekin Kale Barriko Etxeberriarenian (Paulitorenian). Dana Juntiaaren kontura.

ESAERAK

Arotz-ogibidia oso emunkorra etzala erakusteko, badira esaera batzuk arotzen artian ebaltzen ziranak. Esaterako, *'egurraren txiribixak eztau dirurik emuten, burdiñiarenak, berriz, bai; harenaren aldian guria pobria da'*; edota, egun danian lana senper egiñaz ibilli ondoren, artian be zorrak ordaindu ezindda ibiltten ziranian, *'ardautarako lain egitten badogu, conforme'* esaten ei euen.

BASERRI-AROTZAK

Baserriko jente danak, gutxi-asko, arotz-lana ezaguketan dau. Bizimoduak hala erakutsitta, danak dakixe zura lantzen, eta, horretarako, bihar diran erremintta nagusixenak ondo ebaltzen, hala nola, aizkoria, zerrotia, daratulua edo arotz-zepillua. Horreikin gero, etxian bihar dan guztia egitteko, akulua izan edo beste edozer gauza izan, esaterako, bastoiak, urkillak, baba edo leka-parretako makillak eta aizkora, atxur, eskuera,

laixa eta abarren kirtenak. Eta horreiz gain, lan haundixaguak be bai, erlauntzak —arbola-gerrixak hustuta— edota, norberaren etxeko teillatu eta zoruak, etxabolak, artexiak eta abar luzia.

Lan zihatzago edo berezixaguetarako, edo, etxian lan horri heltzeko iñor ezpazan, auzoko arotzak ekarten ziran, adibidez, mahaixak, ohiak, txiseluak, arasak eta armarixuak egitteko. Hortik aparte, auzuetan baziran arotzak burdigiñan, uztarrigiñan, eskueragiñan eta kirtengiñan,



Joxe Arrizabalaga, arotzen hermandadeko akta-liburuarekin

Basogintzaia (4)

Arotzen hermandadia eta baserri-arotzak

ERREPORTAJIA / ROBERTO ALTUNA ERLE

SAN JOSE AROTZEN HERMANDADIA

Herriko arotzak, 1898xan, San Jose izeneko hermandadia sortu euen. Partaide izateko etzan derrigorrezkua arotza izatia, ezta gizakumia izatia be; hasiera batetik, gizakumiak eta emakumiak izan ziran sozio, erdi eta erdi gutxi gorabehera; gehixenak arotzak, banastagiñak, karretillagilliak eta taller txikiñetako langilliak eta euren andriak ziran. Hermandadiaren funtziño nagusixa sozio bat hiltten zanian, hari laguntzatxo bat emutia zan, entierroko gastuak pagaitteko eta haren animaren aldeko

meza bat etarateko, responso barikua edo responso kantaua izan zeikiena. Urteko sarrera-kuotia 1949xan hogeita bost pezetakua zan hogeita eta hogeita hamar urte bittartekuandako, eta, hirurogei eta hirurogeita hamar urte artekuandako, berriz, laurogeita hamabost pezetakua. Hermandadia itxi zanian,

edota hilkutzak egitten espezializauta egozenak.

Gure ezaguerara ailegautakuen artian, honako honeik aittatu geike:

Arantzazu auzoko Soroandietako Juane Urzelai, ardi-txabolak egitten, zoruak botaten eta abarretan asko ibillitakua; gaur egunguen artian, berriz, Jesus Etxezarreta, lan askoren artian, Arrikrutz baserrixa zatirik zati desmontau, konpondu eta berriz montau ebena, edota, turismo bulegoko San Migel errota zaharbarritu ebena.

Araotzek be emun dittu arotzak, eta ez nolanahikuak:

Bernardo Zubia, Txuanena; Patxi Zubia, Gerneta Erdikoetxekua eta Patxi Uriarte, Txantonena, hilkutzak (hildakuendako kajak) egitten zittuainak; Pedro Guridi, Aratzurti Goittikua; Esteban Zumalde, Aizkoittixena; Matias Zumalde, Borjena, tallak, ohiak eta zertzuk egitten etzittuana; Mariano Elortza, Lurgorritakua; Jose Maria Goitia, Gerneta Etxebarrikua; Joxe Arrizabalaga, Urgaingua; Pedro Jose Lezeta, Txurdiñena; Angel Mari Zumalde, Madiñabeitti Behekua, eta Mikel Zumalde, Itturraldekua.

Urrusulan, berriz, Barrenetxeko Markos Lizarralde, egurrezko karretillak eta egitten zittuana.

Uribarrin, Patxi Txope —eliza azpiko etxekua—, oso famosua, Uribarrin eta Araotzen makiña bat lan egindakua.

Larrañan, Sesiñeneko Bentura Aldanondo, Santa Mariñan bizi zana.

Olabarrietan, gerra ostian jardundakuak, Zelabarrengo Benito Zubia, Oñati danerako burtzillak edo burtardatzak egitten zittuana, burdixen kurpillak lantazkuak ziranian. Eta Ozperoko Pantaleon Aiastui, Kubako



Arrizabalaga arotzerixako arotz-erremintak:


Behian, ezkerretik eskumara: eskuadria, formoia, zepillua, lau ultze haundi eta txiki bat, zerrotia, kutxilla-zerria, korte-zerria, garlopiña eta garlopia.

Erdixan: falsa eskuadria, gillamia, matxinbradoria, moldurak etarateko bi zepillo, mazetia eta egurrezko mazua.

Goixan: zazpi daratulu, birbirikiña, maillukia, eskuko azuelia eta azuelia.



Egurra karriaitteko burdimotza.



Arpanarekin oholak etaraten.

gerran ibilli, eta handik etorritakuan burdixak egitten jardun ebena, dana aizkoraz.

Zubillagan, Askazubi baserriko Joxe Lizaur, bestiak beste, bere etxeko

lehenagoko lanetako erremintakin museo etnografiko bat egindakua.

Eta akabaitteko, **Madalenara** ezkonutako Uribarriko Erostege Txikiko Paulo (Guridi). ■



ARRIZABALAGA
Aroztegia



PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21



SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labea egina



Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754



@photogomez



Mundutik Begietara

Etxeko ziklo-kroserako prest

Abenduaren 15ean jokatu da Oñatiko X. Ziklo-Kros Saria, eta Arrikruz-Aloña Mendiko txirrindulariak sasoi betean iritsiko dira. **Aimar Madina** bost aldiz igo da podiumera orain arteko probetan, **Unai Cueva** hirutan, eta **Aimar Erostarbe** garaipen bat lortu du

Ziklo-krosaz gozatzeko aukera izango dugu hilaren 15ean Urrutxu inguruetan, Oñatiko X. Ziklo-Kros Saria jokatu baita, Euskadiko *Challenger*ako puntuagarria. Goizeko 9:30etan hasita, bost proba jokatu dira Kadete, Junior, Sub-23, Elite eta Master mailakoak. Euskadiko espezialistak onenak izango dira bertan, eta tartean Arrikruz-Aloña Mendi taldeko sei lagun: Kadete mailan Aimar Madina, Xabat Kastaños eta Markel Zubia, eta Junior mailan Unai Cueva, Aimar Erostarbe eta Aritz Torres.

SASOI BETEAN

Arrikruz-Aloña Mendiko txirrindulariak denboraldi bikaina egiten ari dira. **Aimar Madinak** (15 urte), adibidez, bost podium lortu ditu orain arteko zortzi probetan. Espainiako Kopako proba batean ere parte hartu zuen, Alcobendasen, Euskadiko selekzioa ordezkatzuz, eta 10. sailkatu zen, azken-aurren iritenda.

Orain arte, hiru aldiz sailkatu da 2. eta Oñatiko proba izan daiteke



errematea jartzeko leku egokia. Gustatzen zaio Urrutxuko zirkuitoa, oso gogorra dela onartuta ere. Etxeko probaren ostean, Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketak ditu begiz jota, eta baita Espainiako ere.

Unai Cueva (17 urte) ere bikain ari da. Orain arteko probetan hiru aldiz igo da podiumera, eta Oñatikoan ere aurrean ibili nahi du. Urrutxuko zirkuitoa oso gogorra iruditzen zaio, baina polita, eta, aukeran, lehor egotea nahi luke, lokatzetan ez baita oso ondo moldatzen. Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketetan ere lan ona egin nahi du, eta denboraldia borobiltzeko, Espainiako txapelketan (Pontevedra) parte hartuko du.

Aimar Erostarbe ere sasoi betean dago. Euskadiko selekzioarekin ibili da Katalunia aldean, nazioarte mailako probetan parte hartzen eta ondo ikusi du bere burua. Gainera, duela hiru aste garraipena lortu zuen Zornotzan, eta Oñatin parte hartzeko aukera badu, aurrean ikusiko dugu, seguru.

caravanas



oñate

• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

OÑATIKO KIROL SARIAK - 2019

Herritarren Sariko hautagaiak


Kirol Sariak emango ditu aurten ere udalak, urtean zehar nabarmendu diren kirolari, teknikari eta laguntzaileen lana aitortzeko. Abenduaren 20an izango da sari emate ekitaldia udaletxean (19:00).

Udaleko Kirol batzordeak emango dituen sariez gain, herritarrek ere izango dute kirolari onena hautatzeko aukera, epaimahaiak proposatutako hiru kirolarien artean. **Axier Alonso** (mendiko eskiko Euskal Herriko txapelduna), **Beñat Guridi** (1.500m-ko Euskadiko txapelduna junior mailan) eta denboraldi bikaina egin duen **Danel Casais** txirrindularia dira aurtengo hautagaiak.

Abenduaren 9tik 18ra bozkatu ahal izango da udalaren webgunean (www.oñati.eus). Parte hartzen dutenen artean bi laguntzako afaria zozkatuko da.



Axier Alonso



Beñat Guridi



Danel Casais

Ainara Uribarri eta Xabi Lete 2019ko rankingeon nagusi

MENDI LASTERKETAK. Hego Euskal Herrian urtean zehar jokatu diren 22 mendi lasterketetako sailkapenak kontuan hartuz, Euskal Mendi federazioak osatzen duen ranking-ean nagusitu dira Ainara Uribarri eta Xabi Lete korrikalari oñatiarrak. Zortzina proba egin dituzte urtean zehar eta beraiek izan dira erregularrenak.



Igor Mugarza, Irungo krosean irabazle

ATLETISMOA. Indartsu ekin dio Igor Mugarza Aloña Mendiko korrikalariak kross denboraldiari. Azaroaren 17an Irunen jokaturako aurreneko krosa aise irabazi zuen 18 urte azpikoen mailan, bigarren sailkatuari ia minutu bateko aldea aterata. Beñat Guridi eta Eider Irizar 7. sailkatu ziren (Sub-20) eta Nahia Lasagabaster (sub-18) 6. Irunen eta 4. Ordizian.



Saioa Arkonada eta Jon Altube Euskal Herriko txapeldun bikoteka

MENDI LASTERKETAK. Saioa Arkonada eta Jon Altube senar-emazteek errelebotako Euskal Herriko mendi duatloien zirkuitoa irabazi dute bikoteka. Hamar proba puntuagarri izan ditu Igantzin hasi eta Adunan amaitu den aurtengo denboraldiak. Iaz bigarren izan ostean, aurtenera pauso nabarmena eman dute. Zorionak!



Erik Fuente Errioxako rallyan nagusi

RALLYAK. Lucas Holke eta Erik Fuente oñatiarrak, Aldeanuevako rallya irabazi dute. Amaiera estu batean, Javier Leyun-Yolanda Lazarok izandako matxura mekanikoa ondo baino hobeto aprobetxatu zuten garaipena lortzeko. Lehen aldia izan da lur gainean Mitsubishi evo IV autoarekin lehiatzen direna eta oso pozik amaitu zuten lasterketa.



MENDI IRTEERA Munitibar-Lekeitio

Aloña Mendik abenduaren 15erako antolatu duen irteera Lea-Artibai inguruan izango da, Munitibar eta Lekeitio artean (22 km). Hilarren 12a baino lehen eman behar da izena (10€) Aloña tabernan, edo alonamendi.mendi@gmail.com. Amaieran, urtea borobiltzeko, bazkaria egingo da Amoroton (20€). Irteera, goizeko 7etan, postetxean.

ESKUBALOIA Bera Bera-Zuazo

Aloña Mendiko eskubaloia sailak antolatuta, emakumezkoen ohorezko mailako Bera Bera eta Zuazo taldeen arteko lagun arteko partidua jokatu da Zubikoan, abenduaren 5ean (19:00). Sarrera, 5€ (16 urtetik beherakoek 2,5€).

GABONETAKO kirol hitzorduak

Abenduaren 28an koadrilen arteko **saskibaloia** txapelketa Zubikoan. Abenduaren 30 eta 31n **futbito** txapelketa Zubikoan. Abenduaren 31n **San Silbestre** lasterketa



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net



Mota guztietako zurgintza-lanak
Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



'KONTRAIZANAK'

XUP! antzerki talde gazteak estraineko antzezlanak taularatuko du abenduaren 20an

▲
Txomin Maidagan,
Sara Arregi,
Paula Polo, Izar
Mendiola, Danel
Teran, Maddi
Altolagirre, Malen
Perez de Arenaza,
eta Aitor Gomezek
osatzen dute XUP!

15-18 urte arteko zortzi gazte ofatiarrek eta arrasatear batek osatutako taldea da **XUP!** Erdiak, gutxi gora behera, Irazan Antzerki Guneako gazte taldetik pasa ostean, iazko udazkenean erabaki zuten talde berria sortu eta beraien bide propioari ekitea, eta prest dute, jada, estreinako lana.

Kontraizanak du izenburua XUP! taldearen *opera primak*. Beraiek sortutako lana da eta, laburbilduz, haxe kontatzen du: antzerki talde bat sortzeko asmoz bederatzi gazte bildu dira, baina tirabira batzuen ondoren, bi lagunek erabakiko dute taldetik joatea; gelatik irtetera doazenean, baina, konturatuko

dira giltzapetuta daudela eta, beraz, gau osoa igaro beharko dute elkarrekin. Eta hor sortuko dira beraien arteko elkarriketak, eztabaidak, haserreak, tirabirak, maitasun istorioak...

➔ **Gaurko gizartearen gazteei kezka eta buruhausteak sortzen dizkieten gai ezberdinei buruz hitz egingo dute, eta hausnarketa eragitea dute helburu**

Gai askori buruz hitz egingo dute gazteek: guraso bariko gazteen errealitateaz, oraindik gai tabua den emakumeen sexualitateaz, aurreiritzi eta estereotipoaz, eta gaur egungo gizarteak sortzen dizkien beste

hainbat kezka eta buruhausteren inguruan jardungo dute, gazte eta emakume ikuspuntu batetik.

Eta gai horien inguruan hausnarketa eragitea da XUP! talde-koen helburua. "Guretzat oso aberasgarria izaten ari da, gai ezberdinak sakonean lantzeko aukera eman digulako antzezlanak, eta gure helburua da mezu horiek egoki transmititzen asmatzea eta ikusleari gogoeta eragitea" adierazi digute taldeko kideek.

Santa Ana aretoan izango da estreinaldia (22:30) eta 16 urtetik gorako herritar guztiak daude gonbidatuta. Sarrerak (4€) Txokolateixan egongo dira salgai (egunean bertan, Santa Ana, 5€).

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

Aurpegi berriekin itzuli da Pake Lekuko antzerki taldea



Urteroko hitzordura hutsik egin barik, 'Remendando males de amores' antzezlan berria estreinatu du Ikusi-Makusi taldeak. Pake Lekuko erretiratuek taularatzen duten hamabosgarrena, beste hainbeste urtetan. Bada zerbait!

Taldeko zuzendari Axun Arzuagak sortutako istorioa da, eta bikote harremanak bideratzen espezializatua dagoen bulego 'berez' batean gertatzen diren kasu bereziak jorratzen ditu, umore ikutuarekin, betiko lez.

Aurtengo nobedade nagusia, baina, aktore taldean ikusi ditugun aurpegi berriak dira (Arrate Kortabarria, Adela Korkostegi, Belen Arregi, Tere Azkoitia, Jose Manuel Ramos eta Arantxa Bengoa). Dotore aritu ziren guztiak, Ikusi-Makusi taldeak luzerako bidea duela erakutsiz. Abenduaren 1ean aurkeztu zuten lan berria Santa Anan eta hemendik aurrera hainbat emanaldi egingo dituzte bai Oñatin eta baita inguruko herrietan ere.




Aitor Arregiren 'Mateoren ama' laburmetraia Zinebin saritua

Ur aparretan dabil azkenaldian Aitor Arregi zine zuzendari oñatiarra eta Moriartiko lantalde osoa. *Lan Trinchera Infinita* filmarekin jasotako sari eta laudorioez gain, Aitor Arregik eta Jose Mari Goenagak idatzi eta zuzendutako *Mateoren ama* laburmetraia Zinebi-n (Dokumentalen eta Film Laburren Nazioarteko Bilboko Jaialdia) saritu dute, Euskal Zinearen Sari Nagusiarekin.



Denboraldi batez ama ikusi gabe egon ostean, zahar-etxean dagoen ama bisitatzaera doan semearen istorioa kontatzen du. Gogorra egingo zaio ama horrela ikustea, seme-alabak ezagutzen ez dituen amona baten moduan. Iban Zalduaren *Inon ez inoiz ez* liburuko *Ama* izeneko errelatoan oinarritutako filma da.

Zinebi jaialdia, laburmetraien arloan munduan dauden A mailako bost lehiaketatako bat da, eta 61. edizio honetan 57 film lehiatu dira sail ofizialean.



'Lapiko artian' eta 'Uribarri auzoa' liburuak aurkeztuko ditu Artixak

Abenduaren 15ean aurkeztuko ditu, udaletxeko areto nagusian (12:30). **Lapiko artian** liburuak Oñatiko 4 sukaldariren errezetak jasotzen ditu, Antton Azpiatzuk bildutakoak. **Uribarri**koan berriz, auzoko historia, gorabeherak eta argazkiak (zaharrak eta berriak) jaso dituzte. Mikel Alberdik idatzi du, Artixa taldekoekin eta auzotarrekin elkarlanean.



M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Magia ikuskizuna

Iñaki Ruiz de Galarreta
'Sun magoa'ren 'La
magia de Houdini'
ikuskizuna.

Santa Anan, 20:00



Pailazoak

Potx eta Lotx
pailazoek 'Etxean'
ikuskizun berria
taularatuko dute
Santa Anan, 17:00

MUSIKA

ABENDUAK 8 / 17:00

ORGANO KONTZERTUA

Aitor Olea Juaristik J. S.
Bach-en obrak joko ditu
Beneditarren San Lorentzo
monasterioan.

ABENDUAK 13 / 21:00

AZKEN SUSTRAIAK + DISCIPULOS DE DIONISOS

Goierrri eta Donostiako
punk-rock taldeak, Ikatz
tarbenaren inaugurazioan
Ikatz tabernan.

ABENDUAK 14 / 19:00

GABON KANTAK

Ganbara eta beste bost
abesbatzek parte hartuko
dute. ETBk grabatuko du.
Dohainik. Arantzazun

ABENDUAK 14 / 22:30

LISABÖ+ALBA

Irun eta Hazparneko rock
taldeak (10€) Gaztelekuan

ABENDUAK 15 / 12:30

ABEREH

Balmasedako Erik Bergan-
zak lan berria aurkeztuko
du Gaztetxean

ABENDUAK 15 / 19:00

GABONETAKO KONTZERTUA

Musika Banda eta herriko
abesbatzen eskutik. Diru

AGENDA



ABENDUA
4-11

URTARRILA

Erakusketa

PEDRO LUIS ORMAZABALEn

'Argazkigintzatik abstrakzioa'
argazki erakusketa kultur etxean.
Asteartetik ostiralera (18:00-20:00),
larunbatetan (12:00-14:00 / 18:00-
20:00) eta igandetan (12:00-14:00)

bilketa Oñatiko Caritas-en
alde izango da San Migel pa-
rrokian

ABENDUAK 21 / 20:00

OÑATI ABESBATZA

Gabonetako kontzertua es-
kainiko du Agustinoetan

ABENDUAK 26 / 21:00

PELAX

Donostiako rock taldea
Ikatz tabernan

ABENDUAK 28 /

TXULETONS

Oñatiko taldeak urteroko
kontzertua emango du
Antixena Gaztetxean

ABENDUAK 29 / 12:30

'BERATU' JAIALDIA

'Beratu' jaialdiaren edizio
berriaren aurkezpen kont-
zertua Gaztetxean

ABENDUAK 31 /

DJ JAIALDIA

Gabon zaharreko festa DJ
herritarren eskutik Gaz-
tetxean

ANTZERKIA

ABENDUAK 20 / 22:30

'KONTRAIZANAK'

Herriko zenbait gaztek sor-
tutako XUP! taldeak 'Kon-
traizanak' lana taulara-
tuko du. Santa Anan.

IKUSKIZUNAK

ABENDUAK 13 / 20:00

LA MAGIA DE HOUDINI

Sun magoaren ikuskizuna
Sarrera: 8€ (16 urtetik be-
herakoek 5€). Santa Anan.

ABENDUAK 27 / 17:00

POTX ETA LOTX

Potx eta Lotx pailazoek
'Etxean' ikuskizun berria
eskainiko dute. Sarrerak
(3,5€) www.oñati.eus, lei-
hatila digitalean eta Txoko-
lateixan. Santa Anan.

JAIALDIAK

ABENDUAK 21

GAZTETXEAREN VII. URTEURRENA

'Zazpi ez da aski' lelopean
hainbat ekintza egingo
dira egunean zehar: zu-
haitz landaketa, asanbla-
dako kide ohiekin solasal-
dia, bertso-bingoa, poteoa
kantu zaharrekin...

IKASTAROAK

ABENDUAK 26

MUSIKA TEKNIKARI

Musika teknikariaren lana
ikasteko aukera. Gaztetxean

ABENDUAK 28 / 10:30

ARKEOLOGIA TAILERRA

'Lehoiaren bila' arkeologia



Zure etxebizitzaren hobetzeko prest

Amaia igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Baserrien eta eraikinen zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE)
-Ilgogailu eta 0 kotara proiektuak -Fatxadak isolatzeko proiektuak

tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati



tailerra adin guztientzako. Aurrez erreserba egin behar da (943082000). Urtarrilaren 4an (10:30) errepikatu egingo da 6 urtetik gorakoentzat. **Arrikutzeko koban**

IPUIN KONTAKETA

ABENDUAK 19 / 18:00

OSTEGUN KONTALARIAK

3-5 urteko haurrentzako saioa, Mireia Delgadoren eskutik. Gonbidapenak hilaren 9tik aurrera. **Haur liburutegian**

ELKARTASUNA

ABENDUAK 14 / 09:00

ELKARTASUN AZOKA

Elkar Hezi ikastetxeak antolatuta. Euskal Herriko GKEak, yoga solidarioa, nekazaritza kulturaren inguruko tailerrak, Elkar Heziko guraso, ikasle eta irakasleek egindako gozoak...Goiz osoan. **Plazan**

HITZALDIA

ABENDUAK 11 / 17:30

'ESCUCHAR PARA EDUCAR'

Hizlaria Cesar Bona (Global Teacher Prize-n ustez, munduko irakasle onenatariko bat). Debagoieneko Eskola Publikoak antolatuta. **Arrasateko Amaia antzokian.**

URTARRILAK 3/ 19:00

GALAXIEN HAURTZAROA

Ilatargik antolatuta. Hizlaria: Itziar Aretxaga (Astrofisika Institutu Nazionalako ikertzailea). **kultur etxean.**



Hileko gomendioa

Tamaina txikia baina anitzio handiko liburua dugu hau. Liburuaren orriak zabalgarriak dira, eta familia bereko eta belaunaldi ezberdinetako emakumeen argazkiak agertzen dira, emakumearen egoerari eta bere bizitzari buruzko hausnarketa eginez. **Liburutegian** duzue eskuragarri!



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Abenduak 9, 10, 18, 19, 27, 28 eta 29. Urtarrilak 7.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Abenduak 11, 12, 20, 21, 22, 24, 25 eta 30.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Abenduak 4, 5, 13, 14, 15, 23 eta 31. Urtarrilak 1 eta 2.

TULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Abenduak 6, 7, 8, 16, 17 eta 26. Urtarrilak 3, 4, 5 eta 6.

ZINEA



Abenduak 5 - 9

ZINE KLUBA:

Paráitos

NAGUSIAK:

El hoyo

GAZTETXOAK:

Animales en apuros



Abenduak 12 - 16

ZINE KLUBA:

Sorry we

missed you

NAGUSIAK:

Legado en los huesos

GAZTETXOAK:

La familia Adams



Abenduak 19 - 23

ZINE KLUBA:

Hasta siempre

hijo mío

NAGUSIAK:

Si yo fuera rico

GAZTETXOAK:

Frozen II



Abend. 27 - Urt. 1

ZINE KLUBA:

Amazing Grace

NAGUSIAK:

Star Wars: el

ascenso de

Skywalker (*)

GAZTETXOAK:

Maléfica

(*) larunbatean 19:30 ere egongo da emanaldia.



MERKATU TXIKIA

GARAJE ITXIA errentan ematen da San Lorentzoko 9 zenbakian. 657716385.

ONATIKO BIKOTE BAT gara eta errentan hartuko genuke etxe bat. Erostea aukera ere baloratzeko prest egongo ginateke. 653 710 456.

ONATIKO EMAKUMEA etxe partikularretan ordututa lana egiteko prest: garbiketasunak, erosketak, plantxa, adinekoei konpainia.... 688 603 052

ODOL ATERALDIA

ABENDUAK 20 / 17:00-19:00

Enpresagintza fakultatean (Ibarra zelaia 2), 17:00-19:00



TABERNA • JATETXEA

Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





(*) Itten: arrastua, pistia

>> JAKINGARRIXA

Etxe izenak (2)

Ogibidiak emundako etxe-izenen zirindaria luzia danez, eta bakoitza bere izenaz ezaguketia ondo etorriko xakunez, hona hemen beste lau etxeren erretratuak, bertan denpora batian izenak adierazten dauen langintza hori egitten eben norbait, edo, haren tartekoren bat bizi izan zan seiñale:



Lehengo Txaiñena (1)
(San Anton kalia)



Oraingo Txaiñena
(San Anton kalia)



Migelkapagiñ(ar)ena (2)
(Patrua kalia)



Sillerona (3)
(Kale Barrixan)



Uztargillia (4)
(Kale Zaharrera eta Aita
Madina kalera emuten dau)

Oharrak: (1): txaiña=zaiña=zainketan dauena=guarda; (2): kapagiña=ganaduendako mantan egitten zittuana; (3): sillerua=sillak egitten zittuana; (4): uztargillia=uztarrixak egitten zittuana

>> Euskaraz egogi

Batzuetan, gaizki tajututako esaldi honeik entzuten dira: **susaak zelai bertan topau dittugu*, edo **plaza bertatik pasau ziran Arantzazurako bidian*.

Bistan da, esaldi horreik akastunak dirala, holako esaldittan izena bera eta indargillia, hau da, elementu bixak deklinaitten diralako modu honetan:

Susaak zelaiXAN bertan topau dittugu.

Arrixak **plazaTIK bertatik** pasau ziran Arantzazurako bidian.

Adibide gehiago:

EtxiAN bertan topau daue hilda.

EtxeTIK bertatik etara daue kamillan

EtxeRAIÑO bertaraiño etorten xako medikua.

...Lekuzko kasu danetan bardin jokatu bihar da:

Nun: HerriXAN bertan badago nahikua entretenimendu, iñora mobiu barik!

Nungua: HerriKUA bertakua da gizon hori, bertan jaixua eta bertan hazittakua.

Nundik: Gaztiaguak giñanian herriTTIK bertatik urtenda faten giñan oiñez Aizkoriraiño.

Nora: Ezaguketan dozu Osinagakua baserrixa? Entzunda dakot, baiña haRA bertara orainddiok ailegau barik nago.

Noraiño: Laurogeita hiruko uraundittan ura ixixa etxeRAIÑO bertaraiño ailegau xakun.

ANTXIÑAKO FOTOGRAFIXIA



Negua hurrian da

Aurten be zurittuta agertu dira mendixak zemendixan. Udazkena izan arren, negua gaiñian dakogula esan gura dau horrek. San Andresetan, Uribarri auzoko jaixetan, ezta harrigarrixa edurra ikustia Aloña aldian, eta baita beherago be. Azkenengo astiok, eguraldi-kontuetan, zoro samarrak izan dittugu: **eurixa idolaz** sarri, batzuetan **edurra gaiñetan**, **hegoaize fresko nahiz epela** hurrengo. Eztago asmaitterik askotan zer arropa jantzi. Baiña garai bakoitzari dagokixona hartu bihar dala dixo esaeriak, eta konformau gaittezen, okerragorik eztatorren bittartian.

Uribarriko argazki zahar honek be halako zerbait erakusten dosku: **negu-girua**, atzeko mendixak edurrez jantzitta ikusten dira-eta. Ba, Larraña eta Olabarrieta aldeko malda horreik hola baldin baegozen, **Uribarritik gora** be berihala topau ahal izango zan **edur zurixa zapalketako aukeria**. Orduan, baiña, banaka batzuk kenduta, etzan ibiliko paraje horreittan gaur adiña eskiatzaille.

Fotografixiak urtetxo batzuk eukiko dittu. Arantzazurako **kamiñua estuagua** da; **eskolia zanak**, **San Andres ermittiak eta Paterretzek**, zutik jarraitu arren, gaur egun beste itxura bat dakoi; ezkutau xakunak ermitta aurreko **santutxua** eta orain hurrenguan aittaketan geben **itturriko santamosua** dira, errepidia zabaldu zanian bota ziralako. Ezkerrian **Goittikua** baserrixaren albua agiri da, eta behekaldian **Tabernakua**.

Laister kaleratuko da **Mikel Alberdik**, **Artixa taldiarekin** eta **auzotarrekin batera**, Uribarriri buruz moldau dauen **liburua**. Bertan irakurri ahal izango dittuzue Oñatiko auzo zahar honetako historixa eta kontu jakingarri asko, irudi eta argazki ugarirekin aberastuta.

Jerardo Elortza 



Etxea dekoratuz bizilekua sortzen duzu



Dekora Lekun zure
etxea bizileku bihurtzen duten
elementuak bilatzen laguntzen dizugu.